guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

2021-11-12 OSTIRALA / 795. ZENBAKIA / 2. AROA
SAKANAKO ASTEKARIA GUAIXE.EUS TOKIKOM

Ilazki Martirenaren apustua

Navarra Fashion Weeken aurkeztutako bildumak harrera ona izan du / 2-4

Erosketa jasangarria

Hondakinak murrizteko, denden bidez, poltsak eta tuperrak banatuko dira / 13

Joanes Bakaikoak aitortu du txapelak poztasuna eta aurrera egiteko ilusioa eman diola / 17

Sakana Mank-ek 'Liburu dasta' solasaldia antolatu du Antxiñe Mendizabalekin / 22

AZAROAREN 26AN
Eguberrietako gehigarria
ZURE PUBLIZITATEA HEMEN
PUBLI@GUAIXE.EUS | 661 523 245 | 948 564 275 (1 LUZAPENA)

Ilazki Martirena Barguilla, bere jantzietako batekin. ILAZKI MARTIRENA

"Ilazki Martirena marka aurrera ateratzea da nire lehentasuna"

ILAZKI MARTIRENA BARGUILLA DISEINATZAILEA, PATROIGILEA ETA JOSTUNA

Navarra Fashion Weeken aurkeztu berri du bere azken jantzi bilduma Ilazki Martirenak, eta kritika onak jaso ditu. Asteburuan ate irekien jardunaldia egingo du atelierrean

Maider Betelu Ganboa ETXARREN

"Ilazki Martirena: diseinua, patroigintza eta estilismoa". Hori da *www.ilazkimartirena.com* webgunean edo sare sozialetan sartuta irakurtzen den lehena. Baina hori eta gehiago da Ilazki Martirena Barguilla: jostuna, patroigilea, jantzi eta estilismo diseinatzailea, antzerki eta filmen jantzi diseinatzailea, sortzailea eta irakaslea.

HASIERAK

Noiz hasi zinen josten?

Batxilergoa bukatu nuenean. Ez nekien ziur zer ikasi, Psikologia edo Enpresa Zientziak, baina patroigintza irakasten zuten goi ziklo baten berri izan nuen, interesgarria iruditu zitzaidan eta kasualitatez hasi nintzen. Lehendabiziko egunean konturatu nintzen ikaragarri gustatzen zitzaidala, ikasi nahi nuela, eta sektore honetan lan egin nahi nuela.

Zure marka sortzearen garrantziaz berehala jabetu zinen eta oso goiz hasi zinen zure diseinuak lehiaketetara aurkezten. Oso argi zenuen jarraitu beharreko bidea.

Nire lanak lehiaketetara aurkezten hasi nintzen batez ere ikasteagatik eta esperientzia hartzeagatik. Ikasketak bukatu nituenean aurreko krisi ekonomikoa iritsi zen, eta Nafarroan, estatuko gainontzeko tokietan bezala, diseinatzaile askok euren tailerrak itxi zituzten. "Galdutako belaunaldia", horrela izendatu zuten gurea. Sektorea nahiko gaizki zegoenez, modarekin kontaktua ez galtzeko nire proiektu pertsonalak lantzen hasi nintzen, diseinu konkretuak. Pixkanaka nire estiloa bilatzen, zer nahi nuen aztertzen, ikasten eta diseinuak lantzen hasi nintzen. Proiektu hauek diru asko eskatzen zuten, eta horregatik beste mota bateko lanekin partekatu nituen. Sei urte eman nituen denetariko lanak egiten, jardunaldi murriztuan, irabazitako diruarekin nire moda proiektuak diseinatu ahal izateko. Horrela aritu nintzen 2015ean nire atelierra ireki nuen arte.

Buztintxurin dago Ilazki Martirena atelierra edo estudioa.

Bai, Santa Luzia paseoko 20. zenbakian. Lehen Etxarrenen lan egiten nuen, etxean. Toki nahiko zabala nuen, baina lan egiteko toki finko bat nahi nuen. Tailerra Iruñean zabaldu nuen, irisgarritasun egokia duen tokian. Autoarekin joanez gero, ez dago aparkatzeko arazorik, eta oinez edo billabesan heltzeko ez dago arazorik. Atelierra gustuko dut duen argitasunarengatik. Aurrean parke bat dut, ondoan ez dut eraikuntzarik eta lan egiteko toki egokia da, josteko eta patroigintza egiteko garrantzitsua baita toki oso argitsua izatea. Bestela asko nekatzen zara.

'Amé&Art' jaialdian parte hartzen hasi zinen, eta ikusgarritasun handia lortu zenuen Mikel Luzea ile apaintzailearendako sortu zenituen estilismoekin. Zure jantziak han eta hemen ikusten hasi ziren eta zure bildumak Navarra Fashion Weeken aurkezten hasi zinen.

Bai, hori guztia tailerra ireki nuenean etorri zen, 2015ean. Aipatutako lehiaketa eta proiektu horiei esker jendeak ni eta nire marka ezagutu du, nire lanak prentsan eta komunikabideetan agertu baitira. Pertsona oso aktiboa naiz, proiektu

ezberdinetan sartzea gustatzen zaidana. Proiektu batean arropak diseinatzen ditudanean, oihalak aukeratzen ditudanean, estilismo bat egiten dudanean edo antzezlan baterako jantzi guztiak diseinatzen ditudanean bilatzen dudana da proiektua nire gustukoa izatea, polita izatea, profesionalekin lan egitea, bihotza duten proiektuak izatea eta ikastea. Gainontzeko guztiaren gainetik. Niretako garrantzitsua da erronka txiki batzuk lortzea. Hau da, proiektua hasten dudanetik bukatzen dudan arte eboluzio bat egotea.

Ilazki Martirenak Navarra Fashion Weeken aurkeztutako diseinu bat. ILAZKI MARTIRENA

ILAZKI MARTIRENA, GERTUTIK

Nortzuk dira zure erreferentziazko jostunak?

Oso tipikoa da baina Balenciaga izugarri gustuko dut. Ahal dudanean Getariara joaten naiz, Balenciaga Museora, bertan egiten dituzten ikastaroetara. Balenciagan patroiak nola egiten zituzten erakusten dute, nola josten duten, teknika... asko gozatzen dut. Eta nire beste erreferente historikoa Coco Channel da. Modan sekulako iraultza egin zuen. Gaur egun emakumeak nola janzten garen, gure arropa, estiloa… berari asko diogu eskertzeko, moda eraldatu zuelako.

Nori zuzenduta daude zure jantziak?

Nagusiki emakumeendako arropak egiten ditut eta batez ere erosotasuna bilatzen dut. Jantzia erosoa izatea, garbitzeko eta lisatzeko erraza izatea eta diseinu pixka bat izatea. Ez dut nahi bakarrik nire soinekoa ikustea, baizik eta soineko hori daraman emakumea ere ikustea. Hau da, jantzia emakumearen osagarri izatea. Finean, diseinu hori daraman emakumea eroso sentitzea eta arropa horrek emakumeari garrantzia ez kentzea. Armonikoa izatea.

"JANTZIA EMAKUMEAREN OSAGARRI IZATEA NAHI DUT, ARMONIKOA IZATEA"

"NIRERA DATOZEN PERTSONA GUZTIAK ILUSIO ETA GOGO BERBERAREKIN JANZTEN DITUT"

"BI BOKAZIO DITUT: ARROPAK EGITEA ETA IRAKASLE IZATEA, OFIZIOAREN PASIOA TRANSMITITZEA"

Zeintzuk dira Ilazki Martirenaren aurtengo tendentziak?

Bi linea egin ditut. Batetik, egunero erabiltzeko arropa, beti landu izan dudana. Puntuarekin lan egitea gustuko dut, mono batzuk ditut, jertseak... Nire bezero gehienek etxetik kanpo lan egiten dute eta lanean eroso egoteko arropa behar dute, baina aldi berean pixka bat jantzia dena. Gero, etxera iristen direnean arropa horrekin eroso jarraitu nahi dute, haurrekin parkera joateko edo lagunekin zerbait hartzera joateko. Hau da, lanera zapatekin edo botekin formal jantzita joan, baina etxera iritsi, zapatilak jarri eta arropa berberarekin jarraitzea. Osagarriak erabiliz arropa bati bi aukera ematea. Bestalde, pixka bat bereziagoak diren pieza batzuk egin ditut. Oihal bereziagoak dira, patroigintza bereziagoa...

Nafarroan nola janzten gara? Ausartak gara, tendentzia berriei kasu egiten diegu, klasikoak gara…

Uste dut Nafarroan ongi janzten garela, gustua dugula. Beltza eta grisa asko erabiltzen ditugu, baina dagoen estiloa gustatzen zait. Esango nuke jendeak kontsumo arduratsuarekin geroz eta kontzientzia gehiago duela. Nire inguruan askok nahi dutena da pieza on batzuk izatea, politak, egunerokotasunean erabili ahal izateko.

Batetik low cost edo ia denboraldi bakarrerako sortzen diren arropa merke horiek erabiltzeko tendentzia dago, baina bestetik jende askok oso argi du kalitate oneko jantzi batzuetan inbertitu beharra dagoela, epe luzean irauten dutelako eta beti erabilgarriak direlako. Bi joerak konbinatzen ditugu?

Nik uste dut geroz eta kontzientzia gehiago dagoela eta ez dela gaur egungo kontua, urteak daramatzagula kontzientzia hori hartzen. Kontsumitzaile guztiek merkatua aldatzeko aukera dugu. Esaterako, ondoko arropa dendan erosten badut, diru hori pertsona eta saltoki horrek aurrera egin ahal izateko inbertitzen dut. Eta, ildo honetan, modak bere merkatua du.

Armairu batean zein arropa dira ezinbestekoak?

Hori oso pertsonala da. Garrantzitsua da guztiok armairuan dugunaz kontziente izatea, armairuan dugunaren analisi bat egitea, erosteko orduan zer behar dugun jakiteko. Gure behar errealak jakitea, kontsumo arduratsua egiteko. Esaterako, ni beltzez janzten naiz askotan, eta soineko beltz asko izaten ditut. Serioago joan nahi badut beltzez guztiz, edo bestela zapatekin jolasten dut. Oso garrantzitsua da beroki on bat izatea, hori bai. Oinarrizko arropa batzuk ditut eta gero bereziagoak diren pieza batzuk: alkandora edo txaketa bereziren bat… eta beraiekin jolasten dut. Baina hori oso pertsonala da.

Nor jantziko zenuke gustura?

Nahi duen pertsona oro jantziko nuke gustura. Etortzen diren emakume edo gizon guztiek niretako garrantzi berbera dute. Ilazki Martirena pieza bat jantzi nahi duten pertsona guztiak ilusio berberarekin janzten ditut.

Zure jantziak dagoeneko aldizkari eta gehigarri batzuetako azalean azaldu dira, ON gehigarrian, esaterako. Zein komunikabideko azalean ikusi nahiko zenuke zure diseinuren bat?

Egia esan, ez dut sekula pentsatu, hausnartuko dut (kar, kar…). Hain sartuta gaude tailerrean, lana ateratzen, askotan kosta egiten zaigula amets horietan pentsatzea.

ATELIERRA

Ilazki Martirena atelierrean zenbatek lan egiten duzue?

Orain arte bakarrik egon izan naiz. Zenbaitetan kolaboratzaileak izan ditut, baina orain lan talde bikaina dut. Jimena lankideak diseinu grafikoko arloa lantzen du, webgunea eta sare sozialak. Konfinamenduan nirekin egin zituen praktikak, lotura bikaina dugu eta hilabete batzuk daramatza nirekin. Luismi Bartzelonatik etorri zen duela hilabete gutxi; tailerrean hasi zen lanean, josten, eta talde ona osatzen dugu. Eta Sofia praktikak egiten dabil. Bakoitzak gure funtzioa dugu eta gure artean oso harreman eta komunikazio ona dugu. Komunikazio hori lortzea oso zaila da, eta oso pozik nago.

Zure bildumako jantziak non eros daitezke?

Une honetan nire bilduma atelierrean dut bakarrik. Atelierra bitan banatua dut: alde batetik tailerra dago eta bestetik showrooma, denda. Bezeroei hitzordua emanez lan egiten dugu. Deitzen naute, hitzordua jarri eta arropa erakusten diet edo nahi duten enkargua hartzen diet. Horrela lan egiten dut guztia behar bezala antolatu ahal izateko. Proiekturen bat aurkeztu behar badut jo eta su egoten gara lanean, eta une horretan ezin ditut bezeroak hartu. Beraz, deitu, ordua hitzartu eta jantziak erakusten dizkiet, beti konpromisorik gabe.

Jantzi batzuk eginak dituzu eta momentuan bertan eros daitezke, baina beste asko pertsonalizatzen dituzu, ezta?

Nahiz eta bilduma finko bat izan, pertsonalizatzeko aukera ematen dut, bakoitzak gure beharrak ditugulako. Agian jantzi bat gustuko duzu baina kolorea ez, edo mauka luzeagoak jarriko zenizkioke edo gona luzatu edo moztu. Bezeroari arropa hori pertsonalizatuko diogu, helburua jendeari bere gustuko arropa egitea baita. Eta bezeroek balo-

rean jartzen dute. Patroiak aukeratu,oihal motak aukeratu eta gero jolasten hastea da kontua.

La Moreako diseinatzaile berrien saria jaso duzu hainbatetan, Donostian eta Bilbon ere saritua izan zara, eta sari horiei esker zure jantziak hainbat argitalpeneko azala izan dira. Honek guztiak horrenbesterako laguntzen al du?

Zure markari ikusgarritasuna emateko, jendeak zure lana ezagutzeko eta esperientzia hartzeko asko laguntzen du. Ni irakaslea naiz eta ikasleak halako lehiaketetara aurkeztera animatzen ditut. Inbertsio handia da, material guztia ordaindu behar duzulako eta ikasleek ez dutelako diru askorik, baina nik lehiaketetan pila bat ikasi dut, jendeak ezagutu nau eta elkarrizketa asko egin izan dizkidate. Pixkanaka eskarmentua hartu eta sektoreak nola funtzionatzen duen ikusten duzu. Profesional izateko nire bidea izan da.

Denetariko estilismoak diseinatu dituzu etxe ezagunetarako, zenbait musikarik zure jantziak janzten dituzte, antzezlanetako jantziak egin dituzu… Webgunean dituzu jasoak, portfolioan. Azkenean, hori da zure curriculuma.

Hori da zure lanaren erakuslea. Badaude proiektu asko oraindik portfolioan ez ditudanak erakutsi. Ildo honetan, gure lanbidean egun batetik bestera ez da guztia ikasten. Moda oso eremu zabala da, teknika pila bat daude, eta pausoka ikasi behar dira. Gurean urte asko pasata jasotzen dira fruituak. Mundu honetan lan egin nahi dutenei pazientziaz hartzea gomendatzen diet; konstantea izanez gero eta benetako apustua egiten bada, azkenean norberak bere lekua lortuko du.

UNIBERTSITATEAN IRAKASLE

Atelierrean nahikoa lanik ez, eta irakasle ere bazara, Nafarroako Unibertsitatean.

Diseinuko karreran modako gradu bat dago eta nik patroigintza eta josten irakasten diet ikasleei. Oso pozik nago, sektore honetan lan egin nahi duen jendeari irakasten diodalako, ikasteko gogotsu dagoena eta pasio eta ilusio hori duena. Gehienak ia ezer jakin gabe etortzen dira eta ikasturtea maila batekin bukatzen dute; bakoitzak berea, baina maila batekin. Irakasle gisa lan egitea bokazio bat da. Atelierrean eta hainbat tokitan urte askotan eman izan ditut klaseak. Bi bokazio ditut: arropak egitea eta irakasle izatea, pasioa dudan ofizioa transmititzea.

NAVARRA FASHION WEEK

Urriaren 22an Navarra Fashion Weeken (NFW) zure azkeneko bilduma aurkeztu zenuen eta kritika oso onak jaso dituzu. Desfile berezia izan zen, modeloek Suakai taldeko Claudia Osés biolin jolearen doinura desfilatu baitzuten.

Halako desfile bat antolatzeak sekulako lana du, batez ere azken orduko erabakia bada, kasu honetan gertatu zen bezala. 2015etik ez nuen NFW-en desfilatu, eta zerbait berezia egin nahi nuen, ezberdina. Suakaiko Claudiarekin hitz egin nuen, Suakaikoekin hiru urte baitaramatzat lanean, beraien jantziak eta estilismoa diseinatzen, eta desfilean biolina jotzea proposatu nion, inprobisazio bat egitea, eta batez ere, ongi pasatzea. Berehala baiezkoa eman zuen. Esperientzia polita izan zen. Oso ongi egin zuen, eta egia esan guztia ondo atera zen. Desfilea egun batzuk pasata ikusi nuen, unean ez baituzu ezer ikusten, kaosa besterik: zapata hemendik, gerrikoa handik… banbalinen atzean egoten gara beti. Baina bideoa ikusi nuenean pozik geratu nintzen.

Desfilean oholtzara atera zinen, agurtzera, soineko berezi batekin.

Bai, pasarelara atera nintzen, eta hori niretako momentu okerrena izaten da, ni oso-oso lotsatia bainaiz eta atzean gustura egoten naizelako. Ateratzea kosta egiten zait, baina egin behar da eta egin nuen. Soinekoa polita zela esan zidaten, atelierreko ate irekietan izanen da.

Gustatuko litzaizuke noizbait zure bilduma pasarela handietan –Cibeles, Paris, Milan, New York…– aurkeztea?

Esperientzia gisa gustatuko litzaidake, mundua ezagutzeko plataforma bikaina izango litzatekeelako, baina ez da une honetan lortu nahi dudan helburua.

ILAZKI MARTIRENA, APUSTUA

2021eko ilbeltzean 'Stella 2021' Iruñeko Erregeen Kabalkada konpartsak antolatutako ikuskizuneko jantziak diseinatu zenituen.

Diseinua janzten duen emakumea eroso sentitzea da helburua. ILAZKI MARTIRENA

"MODAN LAN EGITEN DUGUNOK BAKARRIK DAKIGU ATZEAN ZENBATERAINOKO LANA DAGOEN"

Pandemia zela eta, ezin zen Errege Magoen Kabalkada egin, eta horren ordez azaroaren erdialdean konpartsak erabaki zuen Nafarroa Arenan *Stella 2021* izeneko ikuskizuna egitea. Suakaikoek deitu ninduten ea proiektuan parte hartu nahi nuen, eta gogorra izan zen: bost astetan egin genituen jantzi guztiak.

Une honetan zein proiektutan zaude murgilduta?

Estitxu Pinatxok larunbatean disko berria aurkeztu zuen, eta lan berrirako estilismoa egin diot, bere estiloari buelta bat eman nahi ziolako. Baina une honetan nire marka, Ilazki Martirena, aurrera ateratzen murgilduta nago buru belarri. Bi urte neramatzan arropa bilduma egin gabe bestelako proiektuetan murgilduta. Zer egin nahi nuen eta nire tokia aurkitzeko egin nuen geldialdi hori. Orain marka sustatzearen aldeko apustua egin dut eta horregatik osatu dut atelierreko lantaldea. Jimenak irudi korporatiboa lantzen du, nik kudeaketa egiten dut, patroigintza eta joskintza, eta Luismik josten laguntzen du. Nire helburua tailerreko lana ateratzea eta nire markan lan egitea da. Horrek ez du kentzen antzerki talde batendako jantziak diseinatzea edo bestelako proiektu txikiak egitea, baina orain nire lehentasuna nire atelierra eta marka aurrera ateratzea da.

"ASTEBURUAN JARDUNALDI IREKIAK DITUGU ATELIERREAN; GUZTIAK ZAUDETE GONBIDATUTA"

Kanpotik begiratuta modak friboloa dirudi, efimeroa, baina atzean sekulako lana dago, imajinatu ere ezin dezakeguna.

Egia da, modak irudi friboloa du. Bakarrik sektore honetan lan egiten dugunok dakigu atzean zenbaterainoko lana dagoen. Ikasten hasi nintzenean lehendabiziko hilabetean konturatu nintzen moda zenbat gustatzen zitzaidan, baina aldi berean zeinen gogorra den eta zenbat lan egin behar den. Praktikak Miriam Ocarizekin egin nituen, Bilbon, eta hor jabetu nintzen guztiaz. Uste nuen Ocarizena glamourrez jositako tailerra izango zela, baina lantegi bat zen, ordu pila sartzen ziren tailerra. Adibidez, NFW-eko prestatu nuen desfileak 8 minutu iraun zituen, baina 8 minutu horien atzean sekulako lana dago: patroi guztiak egin, patroiak ongi daudela konprobatu, oihalak bilatu eta aukeratu, guztia josi, probatu, zapatak eta osagarriak bilatu, estilismoak egin, dena probatu... Horretaz gain, bestelakoak erabaki behar dituzu, musika, esaterako. Suakaiko Claudiak biolina jo zuen, baina Gorka Pastorrek oinarrizko basea egin zuen, aste bateko epean. Argiztapena aukeratu behar da, koreografiak prestatu… sekulako lana da. Eta bakarrik behin egingo den ikuskizun baterako. Egia da desfile horretatik gerora erabiliko duzun material asko lortzen duzula: bideoak, argazkiak, arropak… baina ez baduzu mundu hau gertutik ezagutzen, ezin duzu imajinatu ere egin zenbateko lana dagoen atzean. Azken finean, glamour une hori ikusten du jendeak, baina hori sortzeko atzealdean ordu asko daude.

ASTEBURUAN, ATE IREKIAK

Normalean hitzordua emanda hartzen dituzu bezeroak, baina tarteka ate irekiak egiten dituzu eta hain zuzen ere, asteburu honetan izanen dira.

Bai, eta nahi duen jende guztia hurbildu daiteke. Guztiak ongi etorriak zarete. Gaur, ostirala, azaroak 12, 17:00etatik 20:00ak arte izango dugu atelierra zabalik, eta bihar, larunbata, 11:00etatik 13:00ak arte eta 17:00etatik 20:00ak arte. Abenduan ere beste ate ireki batzuk antolatuko ditugu. Prestatzen ditudan ekimen guztien berri sare sozialetan ematen dut.

ASTEKOA

MIKEL MAZKIARAN

Zure herriaren soinua

Zenbat soinu entzuten ditugu egunean zehar? Zarata eta soinua nahastu egiten ditugu; isiltasuna desagertzeko bidean dagoen espeziea da. Isiltasuna, soinurik gabekoa ulertzen duguna, ez da erraz lortzen.

Badaude kamera batzuek kanpoko eta barruko soinuak isolatzen dituztenak (kamera anekoikoak deitzen dira). Bertan isiltasunaren benetako soinua jakin dezakegu. Baina gizakia ez dago erabateko isiltasunera ohituta, eta minutu batzuk igaro ondoren zorabiatzen hasten da. Esperimentu honi esker, gure gorputzak inoiz entzun ez ditugun soinuak entzuteko ahalmena ematen digu. Esate baterako, artikulazioak edo begien mugimendua. Soinu batzuk entzuten direlako eta beste batzuk aurkitu behar ditugulako.

Jon Cage musikaria (isiltasunaren konpositorea ezizenez ezaguna) kamera anekoiko batera joan zen eta bi soinu mota entzun zituela azaldu zuen, bata altua eta bestea baxua. Altua nerbio-sistema zen, baxua odol sistema. Isiltasuna ez dela bakarrik zerbait akustikoa ondorioztatu zuen, baizik eta pentsamolde aldatze bat. Gogoeta horiek bere konposizioan jasota daude, "4'33" konposizioan. 4 minutu eta 33 segundoko isilunea munduaren zarataz betetzen dena.

GIZAKIA EZ DAGO ERABATEKO ISILTASUNERA OHITUTA, ETA MINUTU BATZUK IGARO ONDOREN ZORABIATZEN HASTEN DA

Uste dut hazi garen edo bizi garen herri bakoitzak bere soinuak dituela, eta zaraten artean bereizi behar ditugula. Zer soinu du gure herriak? Nik uste dut nire herriak Aldoiar eta Egibilgo harrobien soinua duela, baita ere trenaren zaratarena zeru garbi eta hotzeko egunetan. Eta aldatzen doazen beste batzuk, soinu anitzak.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Bizi garen sistema sostengaezina da

ERRAFAILAK SAKANAN

Urriaren 9 eta 10ean 600 neska* gazte elkartu ginen Elizondon krisi anizkoitzari nola erantzun behar diogun hausnartu, gure subjektua berrezaugarritu eta gure problematika propioak mahai gaineratzeko helburuarekin.

Mugimenduan gaude, lurrikara gara leloak gure ibilbidea deskribatzen du. Azken urteotan Neska* gazte taldeak loratzen ikusi ditugu Euskal Herrian, hamaika herritan sortu dira. Neska* gazte talde berriak hamaika herritan zapaltzen gaituen sistema honi aurre egiteko, antolatzeko eta sartzeko gai izan gara. Kuantitatiboki hazteaz gain, kualitatiboki ere izugarrizko saltoa eman dugu, hala nola gure subjektua Neska* gazte bezala izendatu dugu, Neska eta gazte izateak errealitate zehatz baten aurrean kokatzen gaituela ulertuz, baita hauei aurre egiteko borroka molde konkretuak sortuz ere.

Mundu mailako pandemia batek eztanda egin du, eta gainean dugun krisiaren ondorioz inoiz baino argiago geratu da mugimendu feminista duela urte asko esaten ari zena: bizi garen sistema sostengaezina da. Azken bi urteetan argi ikusi dugu sistema honetan bizitzak baino, kapitalaren interesak daudela zentroan eta eredu horrek bizitza bera erasotzen duela. Neska* gazteon prekarietatea areagotu egin da, herri mugimenduarentzat antolakuntza eta jarduera politikoa sustatzea zaildu da, sareak eta aliantzak ehuntzeko arazoak egon dira... mugimendu sozial guztien eragin gaitasuna murriztuz.

Esan bezala, garai konplexuak datoz eta bi etorkizun posibleren artean gaude: neoliberalismo basatiaren beste aurrerapauso bat edo krisi momentu hau palanka bezala erabiltzea eredu aldaketa baterantz. Neska gazteok badakigu zeren alde egin eta horretarako zurrunbilo honen erdian erresistentzia izango gara. Lanean jarraituko dugu kontzientziak astintzen, antolatzen eta kaleak hartzen. Euskal Herria feminista dugulako helburu.

Indarkeria desberdinen gogortzearen testuinguru honetan, emakumeon aurkako indarkeriaren kontrako egunaren harira eta Azaroaren 25ean bertan antolatuko diren deialdietan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu! Kalean ikusiko dugu elkar!

Gora borroka feminista!

OBJEKTIBOTIK

Sugandila azken eguzki izpien bila

Lehenengo izotz gauak izan ditugun aste honetan, geroz eta eguzki ordu gutxiago ditu egunak. Badakigu sugandilak eguzki zaleak direla, eta hor harrapatu dugu epeldutako harrian azken eguzki izpiak probesten, itzalak harrapatu aurretik. Gizakiak ere horrela ibiltzen gara neguan, goxotasun lekuak bilatzen.

guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:
Iune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675

GK diseinu zerbitzua:
Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056

Administrazioa:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:
Joxe Aldasoro Jauregi

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

Guaixek ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK

Mank sakana

BAZKIDEAK

mecna

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Sakana Saria ostegunean banatuko da

Lakuntzako kultur etxean, ostegunean, 19:00etan jakinaraziko dute zein den saritua. Ekitaldira joan nahi dutenek aldez aurretik izena eman beharko dute. Proposatutako hautagaien artean aipamen berezia nori eman bozketa bidez erabakiko da

SAKANA

Sakanako Garapen Agentziak bigarren urtez Sakana Saria banatuko du. Sakandarrek saria jasotzeko hautagaiak aurkeztu dituzte. Sakanako Sozioekonomia Behatokiko kideek osatutako epaimahaiak hautagaitzak aztertu eta berak erabakiko du saria nori eman. Erabakia hartzerakoan kontuan izanen dute hautagaiaren jardunak Sakanan gizarte, ingurumen eta ekonomia eragin positiboa izatea. Berdin izanen da erakunde bat den edo kolektibo baten ekimena, irabazi asmoa izan edo ez. Azken finean, sarituari egindako lana aitortuko zaio.

Joan den urtean emandako saria. ARTXIBOA

Lakuntzan Sakana Sariaz aparte, aipamen berezi bat ere banatuko da heldu den ostegunean. Sarira proposatutako hautagaietako batek eskuratuko du aipamen berezia. Hori bozketa bidez aukeratuko dute sakandarrek. Zazpi hautagai daude sakandarren aitortza hori jasotzeko zerrendan: Altsasu Auzolanean Eraikiz, Arakilgo Bioaniztasunaren Zaintza Sarea, Baikor Worldwide, Biak Bat, GUAIXE, Pikuxar euskal txokoa eta Triku Trail Kirol Elkartea. Haietakoren baten alde botoa eman nahi duenak *www.sakanagaratzen.com* webgunearen bidez egin dezake. Horretarako azken egun asteartea izanen da.

Izen ematea

Lakuntzako sari banaketa ekitaldia koronabirusari aurre egiteko dagozkion babes neurriak hartuta eginen da. Horregatik, joan nahi duenak aldez aurretik izena eman beharko da *www.sakanagaratzen.com* webgunearen bidez, 647 864 239 telefonora hots eginez edo *info@sakanagaratzen.com* helbidera mezua bidaliz.

Hautagaiak, eta zergatiak

Altsasu Auzolanean Eraikiz
2016an Altsasun sortutako elkartea. Sorreran herri bazkaria auzolanean antolatzea zuen helburu. Baina, auzolanaren ikuspegiarekin jarraituz, beste arlo batzuetan eragin positiboa izateko ekimenak bultzatu ditu, azkena: Altsasuko herri basoko gune batzuk garbitzea izan da.

Arakilgo Bioaniztasun sarea Zaintza Sarea
Arakilgo nekazaritza barietateen berreskurapenarekin sortua. Barietateak bildu eta mantentzeko 50 herritar ari dira. Hazi banku deszentralizatua da. Tailer eta prestakuntza saioak antolatu ditu. Bioaniztasun eta kultura ondarea mantentzen du.

Baikor Worldwide
Arbizuko enpresa 2004an sortu zuen galdaketaren sektorean eskarmentu handia zuen talde batek. Beraien horniketa katean Sakanako hornitzaileak bereziki kontuan hartzeagatik, eta lanpostu berrietarako eskaintzen duen prestakuntzagatik.

Biak Bat
Sortu zenetik dibertsitate funtzionala duten pertsonen bizi kalitatea eta ongizatea lantzen ditu animalien harremanetan jartzearen bidez. Pertsonekin egiten duten lan bikaina saritzeko proposatzen da. Hiru profesionalek Sakanan eskaintzen dituzte zerbitzuak eta Nafarroa eta estatuan erreferente bilakatu dira.

Guaixe
25 urte baino gehiago daramatza Sakana batzen, eta eskualde guztian ezaguna da. Dinamismoa eta erresilentzia gaitasuna du, izan ere, etorkizuneko erronkei aurre egiten dio, etengabe, dituen baliabide eskasekin. Sakandarren isla izatea bilatzen du. Sakanako jende askok parte hartzen du eta parte hartu du proiektuan.

Pikuxar elkartea
Herrigintza, kulturgintza eta euskararen alorrean lanean urteak daramatza eta Irurtzun inguruan erreferentea bilakatu da bertan antolatzen diren jarduerengatik. Aurten eraikin berria ireki da eta egin den obraren zati handi bat auzolanean egindakoa da. Lanekin herriaren erdialdeak beste egitura bat izatea lortu da.

Triku Trail Kirol Elkartea
Sakanako mendi lasterketen artean berriena da eta denbora gutxian maila gorenean jartzea lortu dute. Talde motore txiki bat izateaz gain, auzolanean aritzen diren herritar askorei esker da posible proba aurrera ateratzea. Sakanan Trail Estazio bat sortzea proposatu zutenak ere hauek izan ziren.

Patxi Amillano Garasa. ARTXIBOA

Munduko gazta txapelketatik sariekin bueltan

Karasatorrek urrezkoa, Amillanok zilarrezko saria lortu dute, eta La Vasconavarrak beste bi

SAKANA

Idiazabal jatorri izendapeneko 18 gaztandegiek 35 domina irabazi dituzte World Cheese Awards nazioarteko maila handiko gazta txapelketan. Sarituen artean Sakanan ekoiztutako lau gazta daude. Batetik, Agurainen dagoen **Julen Karasatorre Aranburu** etxarriarraren Naparbaso gaztak urrezko saria jaso zuen. Bestetik, **Patxi Amillano Garasa** artzain altsasuarraren Larrezabal Eco gaztak zilarrezko saria merezi izan zuen epaileen iritziz. Azkenik, **La Vasconavarra** gaztandegi olaztiarra bi sarirekin bueltatu da Oviedotik, zilarrezko eta brontzezko bana.

World Cheese Awards nazioarteko lehiaketaren 33. edizioa Oviedon jokatu zen joan den astean. Asturiasko hirian hainbat kontinentetako 4.000 gazta baino gehiago lehiatu ziren azaro hasieran. 30 herrialdeetako 250 epaile ingururen ardura izan zen gazta onenen izendapenak argitzea. Idiazabal jatorri izendapeneko arduradunek nabarmendu dutenez, “atzera ere munduko gazta onenen artean sarituak izanak, gure gazten kalitate handia ziurtatu eta gure gaztaren izen ona nazioartean zabaltzen du”.

Nahi duzu...

Eraldatu?
Kudeatu?
Berritu?
Ekin?
Planifikatu?
Hazi?
Ikasi?
Sortu?

Merkatari izan nahi duzu?

Maite bezala, zu ere merkatari izan zaitezke, bisitatu **merkataritza.nafarroa.eus** eta lehen urratsa ematen lagunduko dizugu.

MAITEREN ISTORIOA EZAGUTU.

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

AGENDA 2030

Gizonezkoa erosketa gurdiarekin dendarantz. ARTXIBOA

Azarokotea, astelehenetik aurrera

Sakanako Dendari, Ostalarien eta Zerbitzuen Elkarteko 50 establezimenduetakoren batean erosketa egitean, tonbola bateko txartela jasoko da. Hainbat sari banatuko dira zuzenean. Smart TV baten zozketatuko dute bezeroen artean

SAKANA

Tokiko merkataritzak majo sufritu du pandemiarekin. Ohiko jarduera moztu zen, baita hari lotutako sustapen kanpainak ere. Esaterako, Azarokotea ez zen joan den urtean egin. Baina Sakanako Dendarien, Ostalarien eta Establezimenduen Elkarteak aurten ekimenari berriro heltzea erabaki du. Azarokotearen bidez elkarteko establezimenduetan ohiko erosketak, edo eguberrietakoak, egitera animatu nahi dituzte sakandarrak. Denden atearen beste aldean merkataritza eskaintza anitza eta kalitatezkoa dagoela nabarmendu dute elkartetik, eta, beraz, ibarreko dendetan erosketak egiteko aitzakiarik ez dagoela gehitu dute kanpainaren sustatzaileek. Azarokotearen aurtengo lelo gisa *Sartu! Guztiok irabazi!* aukeratu dute.

Astelehenetik hilaren akaberara bitartean elkarteko establezimenduetan erosketak egiten dituztenek tonbola bateko txartela jasoko du. Zuzeneko sariak lortzeko aukera izanen du bezeroak: 5 euroko sariak eta makina bat pintxo-pote sari moduan ere. Gainera, txartelek Smart TV baten zozketarako baliagarriak izanen dira. Sakanako Dendarien, Ostalarien eta Establezimenduen Elkartearen Azarokotea Nafarroako Gobernuak diruz lagundu du.

16. edizioa

Azaroan herrian erosketak sustatzeko Azarokote kanpaina Altsasuko Dendarien Elkarteak sortu zuen 2005ean. Altsasuko Dendarien Elkarteak hasieran eguberritako zare erraldoi bat zozketatzen zen hasieran. Sakanako Dendarien, Ostalarien eta Establezimenduen Elkartea sortzean, Azarokotea Sakanara zabaldu zen. Hasierako hiru urteak (2015-2017) establezimendu bakoitzeko urdaiazpiko sorta bat zozketatzen zen. Azken hiru urtetan erosketarako txartelak zozketatu dira. Aurten, Udaberriko Tonbolarekin bezala, ostalaritza laguntzea erabaki du elkarteak.

Konpartsakideak haurrei zapiak jartzen. ARTXIBOA

Pandemia ondorengo aurreneko San Martin festak

Irurtzungo Kultur Kontseiluak antolatutako egitaraua atzo hasi eta igandera arte luzatuko da

IRURTZUN

San Martin festak atzo hasi ziren Irurtzunen. Arratsaldez, ohi bezala, Iratxo elkarteak mus txapelketa hartu zuen. Eta erraldoi eta buruhandien konpartsak aurreko bi urtetan jaiotako 52 irurtzundarrei festetako ttattarra eta liburua oparitu zien. Asteburua beteta heldu da. Igandean 23 artisau lanean ikusteko aukera izanen da. Txikienek buztingintza tailerrean parte hartzeko aukera izanen dute.

Egitaraua

Azaroak 12, ostirala

- **19:30-21:30** DJ, plazan.
- **00:00-02:00** DJ, karpan.

Azaroak 13, larunbata

- Dianak: gaita taldea.
- **12:00-14:00** Puzgarriak, plazan.
- **12:30** Udazkeneko Plaza Dantza, Gernika plazan.
- **16:30-18:30** Puzgarriak, plazan (euria egiten badu, pilotalekuan).
- **17:00** Elektrotxufla elektro txaranga.
- **22:00** Kontzertuak, Larrazpin. Larrazpi gazte elkarteak antolatuta.
- **23:00-02:00** Dantzaldia Trikiteens taldearekin.

Azaroak 14, igandea

Dianak: musika eskolako trikitixa taldea.

- **10:30-14:30** Artisautza azoka, plazan.
- **19:00** Oskar Terolen 'Por comentarlo' antzezlana, kultur etxean.

Patata Operazioa, herriz herriko jaki bilketa eginen da igandean

Urdiaindik 09:00ak aldera abiatuko da igandean eta, herriz herri, Satrustegira arte joanen dira eskean

SAKANA

Iruñeko Alegria peñako kideek Sakanako bidea hartuko dute igandean 58. Patata Operazioa egiteko. Patatak, kuiak, sagarrak, intxaurrak, alubiak, tipulak, azak eta beste jasoko dituzte.

Iruñeko Alegria peñako hamar bat kide etorriko dira, Abaigar eraikuntza enpresaren kamioiarekin eta bi furgonetarekin. Haien etorrera iragartzeko igandean beraien autoetako klaxonak joz, karrakarekin edo oihuka Patata Operazioaren berri emanen dute. Urdiain eta Satrustegi arteko bidea eginen dute horrela, atea zabaltzen duten sakandarren etxe parean geldituz eta haiek emandakoa kamioian jasoz. Bosgarren urtez Unanuko bidea hartuko dute ere. Peñatik "emandakoa zertarako erabiltzen den ikusita, sakandarrak eskuzabalak izatera animatzen ditugu. Bildutako guztia Hermanitas de los Pobres edo Behartsuen Haurrideak kongrezioaren onerako baita".

Peñako kideak jaki bilketa egiten. ARTXIBOA

Mankomunitateak hondakin zerbitzurako kamioia erosiko du

Bigarren eskukoa izanen da, eta abendurako lanean izan nahiko lukete

SAKANA

Sakanako Mankomunitateko Hondakin Zerbitzuko kamioi flotak berritzea behar du. Ibarreko erakundeak aurreko bi urtetan trinkotzen duen kamioi bana erosi zuen. Aurten beste horrenbeste egitekoa zen, baina Nafarroako Gobernuak dirulaguntza deialdia berandu atera zuen, eta ematen zituen epeetan enpresek ez zuten betarik hondakinen bilketarako kamioi bat prestatzeko, halakoak ez baitaude stockean. Eta hori gertatu bitartean, Hondakin Zerbitzuko kamioi batek istripua izan zuen Unanun lastailaren 4an. Flota berritzeko premia agerian utzi zuen ezbeharrak.

Hori guztia kontuan izanik, Mank-ek erabaki zuen bere aurrekontuetan aldaketa egitea lastailaren 21ean. Kamioi berria erostea ezinezkoa izanen zenez, hondakin zerbitzurako bigarren eskuko trinkotze kamioia erabaki zuen. Ibilgailua 60.000 eurotan erosi du Mank-ek. Aurrekontuaren %70 Hondakinen Funtsak pagatuko du. Mank-ek kamioi berria abendurako lanean jarri nahi du.

Mank-en trinkotze kamioia. ARTXIBOA

Saihesbidearen bigarren fasearen finantziazioa lotuta

Nafarroako Gobernuaren eta EH Bilduren aurrekontu akordioarekin milioi bat euroko finantziazioa lotu da

IRURTZUN / IZURDIAGA

Nafarroako Gobernuaren 2021eko aurrekontu aurreproiektuan Irurtzungo saihesbideren bigarren faserako dirua egonen da. Gobernuak lastailaren 27ko bilkuran onartu zuen Foru Legearen aurreproiektua. EH Bilduk eskatuta, 10 milioi euroko balioa zuten proposamenak sartu ziren. Horien artean dago Irurtzungo saihesbidearen lanen bigarren fasea. Hau da, Izurdiagatik Iruñea aldera A-15 autobiara lotura eginen duen errepide berria egitea. Foru administrazioak aurreikusitako kopurua 300.000 eurotan handitu da EH Bilduk hala eskatuta, lotura osorik egiteko. Lanek milioi bat euro inguru balio dute.

Aitor Larraza Carrera alkateak jakinarazi duenez, hilabete bukaeran espero dute saihesbideko lanak hastea. Lizarra kalea eta Akaborro industrialdea lotuko dituen 300 metro luzeko errepidea eginen dute bederatzi hilabetetan. Bigarren fasean Izurdiagatik A-15 autobiara lotura eginen da, Iruñeko norabidean. 2022an hasiko dira lanok.

Azaroaren 25era begirako egitaraua

Sakanako Mankomunitateko Berdintasun Zerbitzuak azarorako egitaraua prestatu du ibarreko zenbait udalekin elkarlanean

SAKANA

Hilaren 25a emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna da. Sakanako Mankomunitateak Nafarroako beste hainbat erakunderekin batera, genero indarkeriaren kontrako kanpaina egin du. Horretarako, *Indarkeria bakarra, hamaika modu* leloa aukeratu dute. Berdintasun zerbitzuak prestatutako egitaraua Lakuntzan hasi zen larunbatean, Axut taldearen *Amua* antzezlanaren emanaldiarekin.

Indarkeria sexistarik gabeko gunea Olatzagutian. ARTXIBOA

Egitaraua

Azaroak 12, ostirala
19:00 Aitziber Garmendiaren *Txanogorritxotik otso emera (sei mutil tarteko)* antzezlana. Etxarri Aranazko kultur etxea.

Azaroak 18, osteguna
18:00 Liburu dasta: literatura solasaldiak. Antxine Mendizabal eta *Odolekoak* liburua. Lakuntzako Tximonena jatetxean.

Azaroak 21, igandea
Berdintasunaren aldeko ihes gela, Arruazun.

Azaroak 23, asteartea
17:00 Zineforuma. *Españolas en Paris filma* eta Jone Rubio Mazkiaran, Maialen Galarza Izagirre eta Mikel Claver Herrararekin hizketaldia, euskaraz. Urdiaingo herriaren etxean.
19:00 Emagin informazio gunea, Urdiaingo herriaren etxean.

Azaroak 24, asteazkena
17:00 Emagin informazio gunea, Iturmendin.
19:00 Sorgina txirulina ipuin kontalaria, euskaraz, Iturmendiko udaletxean.

Azaroak 25, osteguna. Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako eguna.
Mobilizazioak.

Azaroak 26, ostirala
17:00 Emagin informazio gunea, Bakaiku.
19:00 Benetan Be teatroren *Porno & Afrodita (edo I love #GorkaUrbizu)* antzezlana, euskaraz, Etxarri Aranazko kultur etxean.
19:00 Aldatzen laguntzen konpainiaren *Birritan bortxatua* antzezlana, Bakaikuko frontoian.

Azaroak 27, larunbata
19:00 Maracaibo Teatroren *Feas* antzezlana. Olatzagutiko kultur etxean.

Azaroak 30, asteartea
17:30 eta 18:30 Virginia Imazen *Pronoia klown* antzezlana, gaztelaniaz, Ziordian.
19:00-21:00 Emagin informazio gunea, Ziordian.

Martxako parte hartzaileek egindako geldialdi bat. PLATAFORMA

Gasbide egitasmoa salatzeko mendi martxa egin zuten

60 bat pertsona trazadura posiblean barna ibili ziren. Epaiketa zain daude udala, kontzejua eta eragileak

ARAKIL

Nedgiak Lekunberrira gasa eraman nahi du. Horretarako, Etxeberri eta Lekunberri arteko 14 km-ko gasbidea aurreikusi du, Aralar mendian barna. Arakilgo Udalak, Etxeberri, Egiarreta eta Etxarrengo kontzejuek eta Gasbidea hemendik ez! plataformak gasbidearendako beste trazadura bat eskatu dute, mendia zeharkatuko ez duena. Gasbideak Astitz eta Lekunberri artean lukeen trazadura ezagutzeko mendi martxa egin zen.

Proiektua gauzatzeko baimenik ez dute eman Larraungo eta Arakilgo udalek, eta helegiteak aurkeztu ondoren epaiketa egiteko zain daude. Udalek, kontzejuek, erakundeen eta herritarren iritziz, "aurkeztutako proiektua bukatu gabe dago, eta beste alternatibak ondo aztertu gabe daude". Izan ere, beste aukera bat Irurtzundik Plazaolako bide berdean barna eramatea izan zitekeen, esaterako. Lanak ez egiteari 0 alternatiba deitzen zaio eta hori ere ez dela ongi aztertu argudiatu dute.

Bestetik, gasaren nazioarteko testuinguruari ere erreparatu diote plataformako kideek.

DUELA 25 URTE...

Irurtzungo elizak 100 urte

Berezko eliza gaur egun kultur etxea hartzen duen eraikin erromanikoa da. Baina XIX. mendearen bigarren erdialdean populazio hazkunde handia izan zuen Irurtzunek eta eliza txiki gelditu zen. Maria Kristina erreginak eliza berrirako proiektua 1892an onartu zuen. Hurrengo urtean hasi ziren lanak, 48.000 pezetako (euro) aurrekontua zutenak. Eliza berriak erdiko nabea eta alboetan bi kapera ditu. 32 metro luze eta 9 metro zabal ditu, altuera 12 metrokoa da. Urteurrena dela eta, udazkeneko festetan elizkizun bereziak egitekoak ziren.

Pentsio duinen eskaerari entzungor ez egiteko

Larunbatean, 12:00etan, Iruñeko Baluarte plazatik abiatuko da manifestazioa. Mugimenduak salatu duenez, gobernuaren Lege Proiektuaren ondorioz 2022an erosteko ahalmena %3 jaitsiko da, gutxieneko pentsioa jasotzen dutenei %2,5

SAKANA

Pentsiodunen mugimendua "pentsio publiko duin eta nahikoak defendatzera" aterako da kalera larunbatean. Baita "murrizketarik eta pribatizaziorik ez" izatea eskatzeko ere. Izan ere, mugimendua ez dago batere gustura Espainiako Gobernua prestatzen ari den lege proiektuarekin. Haien iritzi, "2011ko eta 2013ko pentsio erreformen murrizketei eustea du helburu. Urte gehiago lan egitea eta pentsio gutxiago kobratzea. Pentsioen Sistema Publikoa iraupeneko asistentzia sistema bihurtu nahi da, pentsio plan pribatuak sustatzeko".

Jakinarazi zutenez, Lege Proiektuan jasoa dago kotizaziopeko pentsioak, gutxienekoak barne, urte bakoitzaren hasieran handituko direla urte arteko aldakuntza tasen batez besteko balioaren baliokide den portzentajean. "Indize hori jarriz gero, atzera ere, pentsioak murriztuko dituzte eta erosteko ahalmenean eragina izanen du". Azaldu dutenez, "ministroak iragarri eta Aurrekontu Proiektuan jasoa dagoena aplikatuko balitz pentsioen balioa %2,5 handituko litzateke. PPren 2013ko erreformaren aurretik, eta azken bi urteotan egin bezala, Kontsumo Prezioen Indizearen urte arteko indizea ezarriko balitz, pentsioen balioa %5,5 handituko litzateke".

Altsasuko Zumalakarregi plazan 11:00etan gelditu dira, Iruñera joateko. ARTXIBOA

Ondorioak eta eskaerak

Ondorioztatu dutenez, pentsioek 2022an %3ko erosteko ahalmena galduko dute, baita urte akaberako aparteko ordainketa txikiak ere. "Gutxieneko pentsioa jasotzen dutenek %2,5 galduko dute. Gutxieneko pentsioak gero eta urrutiago daude bataz besteko soldataren %60arekin parekatzetik, Europako Gutun Sozialak gomendatua".

Azaldu zutenez, "pentsioak eta soldatak murrizten dituzten erreformak ez dira oraindik indargabetzen". Horregatik, honakoak eskatu dituzte: 1.080 euroko gutxieneko pentsioa, bizitzaren kostuaren arabera igoko den gutxieneko pentsioa, iraunkortasun faktorea eta belaunaldien arteko ekitate faktoreak indargabetzea, 40 urte kotizatzerakoan erretiroa aurreratzea, genero arrakala desagerraraztea eta pentsio publikoak kalitatezko enpleguaren bidez bermatzea.

Nafarroa XXI dinamikak bere burua aurkeztuko du

Asteazkenean, 19:30ean, Altsasuko Gure Etxea eraikinean aurkezpena eta lan saioa

SAKANA

Nafarroaren autogobernuaren galerarekin kezkatuta dauden pertsonek osatu dute Nafarroa XXI dinamika. Kezka dute ikusten dutelako "Nafarroak gero eta botere politiko gutxiago duelako gobernu zentrala, Brusela, merkatu edo multinazionalen aitzinean. Horrek esan nahi du nafarrok gure burua gobernatzeko gaitasuna galtzen ari garela". Sustatzaileen iritziz, Nafarroak behar du eta prest dago, XXI. mendeko erronka sozial eta politikoei aurre egiteko. Gogorarazi dute 1982ko Nafarroako Foru Hobekuntza izan zela erreferendum baten bidez onetsi ez zen estatuko komunitate historiko bakarra. "Horren guztiaren inguruan eztabaidatzea "gaurkotasun handia" duela uste dute sustatzaileek. Horregatik, "guztion artean Foru Hobekuntza nola egosi zen kontatuko duen herri kontakizun bat osatzeko ordua" dela. Horregatik Altsasuko aurkezpena.

Olaztiarrak azpiko dermioko bidean paseatzen. ARTXIBOA

Klima aldaketari aurre egiteko iritzi eske

Alkateen Itunaren barruan, Sakanako energia plangintzan parte hartzeko aukera dago Sakanako Garapen Agentziaren inkesta erantzunez. Zortzi ekintza ildo proposatu dituzte, eta norberaren herriarendako lehentasunezkoak zein diren zehazteko eskatu

SAKANA

Nafarroako Gobernuak koordinatzen du Klima eta Energiaren Alkateen Ituna, Sakanako 15 udalek 2019an sinatu zutena. Haren helburua da klima aldaketaren ondorioetara egokitzeko udalerrien erresilientzia hobetzea. Horretarako, udalek Klimaren eta Energia Iraunkorraren aldeko Ekintza Plana egin beharra dute 2022ko udaberri aurretik. Plan hori egin ahal izateko inkesta zabaldu dute sakandarrek iritzia eman eta ekarpenak planean jasotzeko.

Europar Batasunak 2030erako ezarritako arintze helburuak betetzen laguntzeko udalerri bakoitzak, bere planean arintze eta egokitze eremuei buruz egiten duen azterketan, zenbait neurri prestatu eta aztertuko ditu. Helburuen artean dago CO_2 isuriak gutxienez %40 murriztea 2005. urtearekin alderatuta. Hori lortzeko udal eraikin, ekipamendu, instalazio, argiteria publikoa, udal ibilgailuak, udalerrietako etxebizitzak, etxeko hondakinak eta garraioa aztertu beharko dituzte.

Itunak udalei eskatzen die haien eremuan klima aldaketak izan ditzakeen ebidentziak ebaluatzea, baita arrisku eta kalteberatasun posibleen balantzea egitea ere. Klima Aldaketari buruzko Adituen Gobernu arteko Taldeak ezarritako agertokien arabera tokiko egokitzapen estrategia bat egin beharko dute lehentasunezko ekintza neurriak eta horien balorazio ekonomikoa zehaztuz.

Inkesta

Sakanako Garapen Agentziako industria eta energia teknikari Aintzane Iriberri Berrostegieta arduradunak azaldu duenez, "udal bakoitzak bere plangintza egin beharra du. Inkesta horren bidez lortu nahi duguna da sakandarrek beraien lehentasunak esatea, plangintzaren osaketan sakandarrek zeresana badutelako". *www.sakanagaratzen.com* webgunean dago galdetegia eta azaroaren 30era arte erantzun dezakete sakandarrek.

Inkestak zortzi lan lerroren inguruan galderak ditu, eta garrantziaren arabera batetik hamarrera baloratu eta erantzunaren zergatia emateko eskatzen du inkestak. Honakoak dira gaiak: administrazioak zeregin nagusia du tokiko ekintzan, deskarbonizazioari eta klima aldaketara egokitzeari begira; zirkulu ekonomia eta hondakinen kudeaketa; ur hornidura, saneamendu eta bilketa sistema eraginkorrak; energia; hiri plangintza eta klima aldaketarekin zerikusia duten gaixotasunen eta osasun ondorioak.

Sakanako Sozioekonomia Behatokiko kideak plana lantzen ari dira. ARTXIBOA

Estrategia planean aurreneko pausoa, ebaluazioa

Bigarren plana egiteko lehendabizikoa ebaluatuko da. Sakandarrek iritzia emateko aukera dute

SAKANA

Iraila eta garagartzaro artean 2021-2027 Sakanako Estrategia Plana eginen da. Bigarrena egiteko aurrekoa aztertu eta bere emaitzak baloratu behar dira. Sakanako Garapen Agentzian (SGA). Horretan hasi dira hainbat eragilerekin elkarlanean. Hala ere, SGAko kideek uste dute "herritarren parte hartzea funtsezkoa" dela, orain balorazioa egitean, eta 2021-2027 Sakana Estrategia Planaren garapen guztian.

Balorazio fasean sakandarren iritzia jasotzeko galdetegia sortu du SGAk, eta herritarrak hura erantzutera gonbidatu ditu. Batetik, galdetzen dute 2014-2020 Sakanako Estrategia Plana ezagutzen duten. Hala bada, egindako jarduera publikoen betetzea nola baloratzen duten jakin nahi lukete SGAko kideek. Baita lehen planeko zerk funtzionatu duen eta zerk ez zehaztea ere. Galdetegia erantzun nahi duten sakandarrek 2014 eta 2020 urteen arteko ibarreko sozioekonomia bilakaera nola baloratu beharko dute. Aldi berean, zer hobetu den eta zerk egin duen okerrera zehaztea eskatu dute.

Etorkizunerako hamaika erronka zerrendatu dituzte eta haien garrantzia baloratzeko eskatzen da galdetegian. Bestelako erronkak gaineratzeko aukera dago ere. Azkenik, Sakanan bizi eta lan egin leloa gauzatzeko zer jarduerak sustatu litezkeen, proposamenak egiteko aukera ematen du SGAk.

Hamalau galderez osatutako galdetegia *www.sakanagaratzen.com* webgunean dago. Toki berean estrategia plan berria egiteko sortuko diren materialak ikusgai jarriko dituzte. Aurrenekoak hilaren akaberarako izanen dira.

Otadia aterpearen etorkizuna, berraztertzen

Nafarroako Gobernuaren iritziz, "instalazioak birplanteamendu sakona behar du bere etorkizuna bideragarri egiteko". Sukaldea kudeatzeko deialdia hutsik gelditu zen eta "hilabeteak dira erabilerarik ez duela". Berrazterketa bitartean aterpea itxita egonen da

ALTSASU

Nafarroako Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaile Carlos Amatriain Bustok azaldu duenez, "aterpetxeak hilabeteak daramatza erabili gabe. Sukaldea kudeatzeko lehiaketa hutsik gelditu zen, eta elikadura zerbitzua eskaintzerik ez dago. Beraz, ezinezkoa da ostatu hartzea eskaintzea". Amatriainek nabarmendu duenez, "instalazioak birplanteamendu sakona behar du bere etorkizuna bideragarri egiteko".

Zuzendariak aterpeko ostatu gauen kopuruari, erabiltze motari, instalazioaren neurriei, eraikinaren antzinatasunari, mantentze lanen kostuari eta abarri erreparatu die. "Horiek guztiak orain arte inoiz egin ez den beharrezko hausnarketa agerian uzten dute. Horregatik, orain erabaki dugu jarduerarik ez duen instalazio bat irekita ez mantentzea, etorkizuna birplanteatzen den bitartean".

Otadia aterpea gaur egun itxita dago.

Langileak

Aterpean sei lanpostu daude, horietatik bost aldi baterako langileek betetzen dute, eta bestea hutsik dago. "Plaza horien amortizazioari esker, izaera teknikoko lau lanpostu berri sortuko dira (Gazteriako goi mailako teknikari bat, bi gizarte hezitzaile eta erdi mailako teknikari bat), Nafarroako gazte guztiei benetako eskaeretan lan egiteko zerbitzua emango dietenak", azaldu du Amatriainek, eta gaineratu du: "gazteen errealitate berriak egokitzera behartzen gaitu.

Estrategia lehentasunei jarraituz, "aldaketa egiteko, beharrezkoa da, besteak beste, plantilla egungo eskaeretara egokitzea". Zuzendariak gaineratu duenez, "aldaketa gauzatzeko, eskakizun teknikoko plaza berriak sortu behar dira, gaur egun institutuak ez dituenak, eta, horretarako, ezinbestekoa da norberaren organigramaren barruan zenbait plaza amortizatzea". Aterpekoak bitarteko langileak direnez, kontratazio zerrendara bueltatuko dira. "Ezin dira birkokatu, ez baitago zerbitzu orokorretako edota administrazioko lanposturik eskaintzeko, egoitza nagusian dagoeneko behar adina langile baitaude beharrak asetzeko. Nolanahi ere, plantilla organikoaren aldaketak Funtzio Publikoak ezartzen duen denboran eta moduan gauzatuko dira eta, beraz, gaur egun ezin da kontratuen akabera data zehatzik zehaztu", argitu du.

Aterpeez

Altsasukoaz aparte, Nafarroako Gazteriaren Institutuak beste hiru aterpe ditu: Lekarozko Baztango aterpetxea, Doneztebeko Belbieretxea eta Orba ibarreko Getadar. Gainera, Iruñean, baina Nafarroako Kirolaren Institutuari atxikita, ikasle asko dituen Fuerte del Principe Gazte Egoitza dago. Amatriainek azaldu duenez, aterpeek "funtzionamendu independentea dute, eta, beraz, zerbitzua bermatuta dago. Gaur egun, instalazio guztiek, Otadiak izan ezik, pandemiaren aurreko ohiko funtzionamendua berreskuratu dute".

Altsasuko aterpetxeak 84 ohe ditu, hainbat tamaina geletan banatuta. Gainera, bilera gelak eta berdegune zabala ditu. 2019an 8.239 aldi bete ziren oheak, "edukiera osoaren heren bat, gutxi gorabehera. Zenbakien kontua bakarrik ez bada ere, kontua da arlo publikoa kudeatzeko erantzukizunak baliabideen eraginkortasuna bilatzeko eta instalazio horren bideragarritasuna serioski planteatzeko eskatzen digula, orain arte baloratu ez dena", zehaztu du Amatriainek. Jakinarazi duenez, "Altsasuko Udalarekin, Nafarroako Gobernuko Ondare Zerbitzuarekin eta etorkizunari begira interesa izan dezaketen beste erakunde batzuekin hitz eginen dugu bideragarritasuna emateko, baina momentuz egokia iruditu zaigu instalazioa zabalik ez mantentzea, ez baitago ez okupaziorik ez jarduerarik, eta, bitartean, etorkizuna birplanteatzea".

"ETORKIZUNA BIRPLANTEATU BITARTEAN IREKITA EZ MANTENTZEA ERABAKI DUGU"

LABek itxiko dutela salatu du

Zelai kaleko 87. zenbakia da Otadia aterpea, Nafarroako Gazteriaren Institutuak kudeatzen duena. LABek salatu duenez, "antza denez, pandemiaren ondoren, aterpetxe hau uzteko erabaki politikoa hartu zuen Nafarroako Gobernuak. Jakin dugunez, erreserbak baztertu egin dira, eta orain badakigu Nafarroako Gazteriaren Institutuak ez duela zentro horren ardura hartzen jarraitu nahi", azaldu dute LABetik. "Aterpetxearen itxieraren edo pribatizazioan aurrean gaude", zehaztu dute. Sindikatuak salatu duenez, "inork ez du esaten aterpetxearekin eta hango sei lanpostuekin zer pasatuko den.

Dakiguna da sei lanpostuak gazteriaren instituturako gazte teknikarien plazen mesedetan amortizatuko direla".

Sindikatuak jakinarazi duenez, 2019an, guztira 10.000 ohe bete ziren Otadia aterpean. "Altsasura datozen bisitariek tokiko merkataritzan eta ostalaritzan kontsumitzen dute; beraz, pandemia eta egungo kontsumo ereduaren ondorioz kaltetua dagoen sektore bat gehiago zigortzen du aterpearen itxierak". LABek aterpetxearen etorkizunaren alde aktibatzera deitzen ditu Sakanako gizartea eta eragileak, bere izaera publiko eta lanpostuen defentsan. "Aterpetxea ixtea, enpleguaren, ostalaritzaren, saltoki txikien eta inguruan ezartzen ari den garapen estrategiaren aurkako erasoa da".

EH Bilduk ez ixteko eskatu du

EH Bildu Otadia aterpea ixtearen kontra dago. Eta orain arte bezala Nafarroako Gazteriaren Institutuak kudeatzea nahi du. Koalizioak gogorarazi du aterpea nazioarteko aterpetxeen sare baten parte dela. EH Bilduk azaldu duenez, urtean 10.000 gaualdi hartzen ditu, "dauden langileekin, hori ia betetze maximoa da".

Koalizioak nabarmendu duenez, aterpea "era guztietako elkarte, kultur eta kirol taldeek erabiltzen dute, baita Altsasukoak ere". Eta adibide gisa Haize Berriak banda, Erkudengo Ama abesbatza, gaztetxea, inauterien aldeko kolektiboa jarri ditu. "Maiz erabili dute aterpea Altsasura datozen taldeei ostatu emateko". Aterpean ostatu hartutako pertsonak herriko denda eta taberna eta jatetxeetan kontsumitzen dutela gogorarazi du EH Bilduk, gainera, "Altsasu kanpoan sustatzeko modu bat dira". Koalizioak ziurtatu duenez, aterpeak erreserba eskaerak jasotzen segitzen du.

Aterpearen itxieraren kontra Altsasuko Udalak "jarrera argi eta garbia hartzeko" eskatu du koalizioak. Aldi berean, "aterpearen jarraipena defendatzeko deitutako mobilizazioetan parte hartzeko" deia egin die herritarrei. Lehendabiziko deialdia asteazkenerako egina dago; 09:00etan, Nafarroako Gobernuaren egoitzaren parean izanen da. CCOO, UGT, ELA eta LAB sindikatuek deitutako elkarretaratzea da.

Amaia Okariz Ormaetxea eta Itziar Zudaire Salegi, Sakanako Mankomunitateko Hondakin Zerbitzuko hezitzaileak.

"Erosketak modu jasangarriagoan egiteko"

ITZIAR ZUDAIRE SALEGI ETA AMAIA OKARIZ ORMAETXEA HEZITZAILEAK

Zero Zabor Komertzioa kanpaina aurkeztu du Hondakin Zerbitzuak. Hondakin gutxiago sortzeko, denden bidez,berrerabiltzeko poltsak eta tuperrak banatuko dira

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Ibarreko erakundeko buru David Oroz Alonsok kanpainaren aurkezpenean esan zuenez, "hondakinen kudeaketaren inguruan komertzioak duen garrantziaz kontziente gara. Batetik, sortzaile gisa komertzioak direnagatik. Baina, bestetik, herritarrekin duzuen harreman eta komunikazio zuzenagatik, adibide izan daitezkeelako". Orozek azaldu zuenez, kanpainak hiru helburu ditu: merkataritzan hondakinen sorrera murriztu, hondakinen kudeaketa egokia bultzatu eta, azkenik, denda txikiak sustatu eta duten balioa aitortzea.

Mank-eko hondakin teknikari Olatz Garde Mazkiaranek jakinarazi zuenez, "Nafarroan halako programa bat egiten den lehendabizikoa da Sakanakoa". Kanpaina hondakinen kudeaketan praktika onen eredu egokia dela nabarmendu zuen Gardek, "zero zaborrarena ez da toki askotan egiten, jendea kontzeptuan gelditzen da eta gure helburua praktikan jartzea da". Kanpainak 27.000 euroko aurrekontua du. Nafarroako Hondakinen Funtsak finantzatu du kanpaina. Azken diru funts hori hondakinak hondakindegira eramateagatik ordaindu beharreko zergekin eta ordaindutako isunekin sortzen da helburua.

Zer da zero zabor komertzioetan?

Amaia. Hondakinak murrizteko eta komertzioetan hondakinak ongi bereizteko Sakanako Mankomunitatetik bulkatu dugun kanpaina da. Erosketak modu jasangarriagoan egiteko. Horretarako, dendarien bidez, bezeroei material batzuk banatuko dizkiegu: poltsak, tuperrak… Horiek behin eta berriro erabiltzeko, eta erosterakoan hondakin gutxiago sortzeko.

"BERRERABILTZEKO POLTSAK ETA TUPERRAK ERABILIZ HONDAKIN GUTXIAGO SORTUKO DITUGU"

Denden bidez bezeroei material banaketa?

Itziar. Hori da ideia. Alde batetik, denda txikiek hartu-eman zuzena daukate bezeroekin, eta eredu izan daitezke. Denden bitartez jendeak berrerabiltzeko materialak jasoko ditu. Horiek behin eta berriz erabiliz hondakin gutxiago sortuko dituzte eta erosketak modu jasangarriagoan eginen dira. Azken batean, denon artean Sakana garbiago eta jasangarriagoa egitea da.

Horretarako zer material banatu behar dituzue dendarien bitartez?

A. Harategi eta arrandegietan tuper batzuk banatuko ditugu, erabiltzen diren paperak eta plastikoa murrizteko. Jatetxeetan ontzi konpostagarri batzuk utziko ditugu. Bi erabilera dituzte, prestatzen dituzten jatekoak bezeroei etxera eraman, edo bazkari-afarien soberakinak edukiontzira bota beharrean kutxa horietan bezeroek soberakoa janaria etxera eramateko. Kutxatxo horiek dituzten jatetxeetan horren berri emanez kartela jarriko dugu. Bestalde bi poltsa ditugu, erabilera bakarreko poltsak ordezkatzeko. Kotoizko poltsak, komertzioan erabil daitezke: arropa, zapata, liburu, kopia dendak eta halako dendetan. Jutezko poltsak, berriz, lehengo kapazuak gogora ekartzen dituztenak, janari denden bidez banatuko dira. Poltsen barruan bezeroak kanpainaren berri ematen duen idatzi bat opatuko du. Dendariek material guztiak dohainik jasoko dituzte.

Dendetan hondakin asko sortzen dira?

I. Dendak azkenean, guztiok bezala, hondakinak sortzen dituzte. Beraiek sortzen dituzten hondakinak daude. Baina, batez ere, guk erosle gisa erosketak egitera joatean sortzen ditugun hondakinak murriztea nahi dugu. "Emaidazu poltsa bat" esan beharrean nik dendara nire poltsa edo nire tuperra eramaten badut hondakin gutxiago sortzen dut. Eta, horrela, modu jasangarriagoan erosten dut. Kontzientzia hori sortu nahi dugu.

Nola jakinen dugu zein dendetan emanen dizkiguten material horiek?

A. Parte hartuko duten establezimendu guztiek, beraien hondakinak ongi bereizi eta murrizten saiatuko direnak, pegatina bereizgarri bat izanen dute establezimenduaren atean. Horrela jakinen dugu Zero Zabor komertzioa direla. Establezimendu horren balio positibo baten berri ematen du pegatinak. Denda horretan hondakinekin lotutakoak behar bezala egiten direla ziurtatuko du pegatinak. Horren inguruko komunikazio kanpainak eginen dira.

"ZERO ZABOR KOMERTZIOA DIRA HONDAKINAK ONGI BEREIZI ETA MURRIZTEN DUTENAK"

Mank-ek establezimenduen kartoi bilketa berezia egiten du, ezta?

I. Kartoi asko sortzen duten komertzio batzuk atez ateko kartoi bilketa puntuala dute, bai.

Hondakinen sorreraren prebentzioan beste neurriren bat hartuko duzue?

I. Janari denden bidez jakien hondarrekin edo soberakinekin prestatu daitezkeen errezetak banatuko ditugu. Horien bidez elikagaiak aprobetxatu eta ez botatzea sustatu nahi dugu. Errezetendako euskarri bat jarriko dugu janari dendetan. Hasteko hamar errezeta prestatu ditugu.

Kanpainaren berri emateko dendariekin hizketatu zarete. Zer esan dizuete?

A. Harrera oso ona izan da. Denendako positiboa da horrelako ekimenak egitea. Orain materialak dendaz denda banatzen hasten garenean hartu-eman estuagoa izanen dugu; beraien zalantzak argitzeko, eta beraien hondakinen kudeaketan lagunzeko. Ezagutuko gaituzte eta jakinen dute nahi dutenerako hor gaituztela.

Zalantzak argitu, ekarpenak jaso… Hori kanpaina martxan dagoen bitartean?

I. Ez da kanpaina estatiko bat, muga bat izanen duena. Kanpainak irekia, dinamikoa izan nahi du, aurkezpen honekin ez da bukatuko. Ideia gehiago ditugu. Baditugu beste komertzio eta ostalari batzuekin batera egiteko ideiak. Eta, jakina, guretako dendarien iritzia jasotzea oso garrantzitsua da. Baita bezeroek materialei buruz esaten dietena ere. Eta hartu-eman estu hori edukitzea. Komunikazio horretan oinarrituko dira aldaketak edo aukera berriak. Dendetara bisitak eginen ditugu. Honekin hasi gara, baina garatzeko ideia dugu. Bestetik, hondakinen banaketaren inguruan dendariek dituzten zalantzak argitzeko gaude. Gurekin harremanetan jartzeko ez dago mugarik.

Noiz hasiko dira dendariak materialak banatzen?

A. Aurkezpen honen ondoren dendetara materialak poliki-poliki banatzen hasiko gara orain. Denda asko daude Sakanan. Jaso ahala dendariak materialak banatzen hasiko dira.

Banatuko diren materialak

- **6.000** kotoizko poltsa.
- **2.000** jutezko poltsa.
- **4.800** tuper.
- **13.600** ontzi jatekoak eramateko.
- **50** errezeta erakustoki, 50 errezetekin.

Loizuko gizakiaren aurkikuntza, iruditan

Argazki erakusketa Altsasuko Iortia kultur gunean gaurtik hilaren 28ra arte; astegunetan 17:30etik 20:00etara, larunbatetan ikuskizuna baino ordu bat lehenago eta domeketan 16:00etatik 20:30era. Gaur, 18:00etan, bisita gidatua izanen da

ALTSASU

Erro ibaiaren goiko arroan, Errotalde I kobazuloan, Sakon espeleologia taldeko kideek Loizuko gizona opatu zuten 2017ko azaroaren 20an. Balio handiko aurkikuntza da, aitzin historiko munduko adituen arreta erakarri duena. Opatutako gorpuzkiek 11.700 urte baino gehiago dituzte. Nafarroan aurkitutako giza gorputzik zaharrena da, eta kontserbazio egoera aparta du.

Altsasun ikusgai izanen den erakusketan Loizuko Gizakia lezetik ateratzeko eta ondoren aztertzeko lanei buruzko formatu handiko argazkiak ikusgai izanen dira. Guztira 35 irudi dira, aurkikuntza garrantzitsu horretan lan egin duten erakundeek utzitakoak. Kobazuloaren topografia eta beste argibide panel batzuk ere osatzen dute erakusketa. Nafarroako Espeleologia Federazioak antolatu du, Sakon Espeleologia Klubarekin, Nafarroako Gobernuarekin eta Kantabriako Historiaurreko Ikerketen Nazioarteko Institutuarekin elkarlanean.

Ikerlaria Loizuko Gizakiaren hortzeria eskutan duela. UTZITAKOA

Gizakiaz

Loizuko Gizakiari buruzko ikerketa proiektuan hainbat diziplinetako eta ikerketa zentroetako hogeita bost espezialista baino gehiago ari dira parte hartzen, esaterako: Kantabriako Unibertsitateko Historiaurreko Ikerketen Institutua, Burgosko Unibertsitatea, Euskal Herriko Unibertsitatea, Giza Bilakaeraren Ikerketarako Zentro Nazionala, Valentziako Unibertsitatea, Marques de Valdecilla Unibertsitate Ospitalea, Uppsalako Unibertsitatea eta Cambridgeko Unibertsitatea.

Pablo Arias Cabal, Kantabriako Unibertsitateko katedraduna eta proiektuaren ikertzaile nagusia, eta Jesus Garcia Gazolaz, Kulturako Zuzendaritza Nagusiko arkeologoak Iruñean larunbatean emandako hitzaldi batean lehen ikerketen emaitzen berri eman zuten. Jakinarazi zutenez, Loizuko Gizakia 21 eta 23 urte arteko gizon bat da, 1,60-1,65 metroko altuera eta 50-55 kiloko pisua zuena. Bizitzan jarduera fisiko bizia izan zuen, eta eskuina izan zitekeela uste dute.

GORPUZKIAK LEZETIK ATERA ETA ONDOREN AZTERTZEKO LANEI BURUZKO ARGAZKIAK DAUDE IKUSGAI

Ariasek eta Garciak jakinarazi zutenez, gizonezkoa modu bortitzean hil zen, buru hezurreko ezkerreko parietalean eragindako traumatismo baten ondorioz. Hipotesirik arrazoizkoena da zauri sarkor bat izan zela, gizonezkoa bizkarrez zegoela, gezi batek garezurra zeharkatu ziola.

Hileta portaerei dagokienez, egiaztatu da gorpua lezean bertan deskonposatu zela, hila guztiz jantzita baitzegoen. Ziurrenik, besoak bularraren gainean gurutzatuta zeuzkan. Bestetik, nabarmentzekoa da buru aldean agertzen den okre koloratzaile kantitate handia, hematitez, buztinez eta materia organikoz egindakoa. "Badakigu amalgama hori barrunbetik kanpo prestatu zela, baina zehazteke dago ea gorpuak apaingarri pertsonal gisa zeraman zerbait zen, hileta erritualaren parte izan zen edo antiseptikoa ere izan zitekeen", azaldu dute ikerlariek.

Hasi berri diren hortzetako mikro higaduraren analisiei esker haragi ugariko dieta antzeman dute, baita hortzetako higienearekin eta hortzak hirugarren esku gisa erabiliak izan zirenaren zantzuak ere, oraindik kontrastatu behar dena. Gorpuzkiaren biomolekula eta DNA laginak hartu eta ikertzen hasiak dira. Bestetik, lezean espeleologia ikerketek segitzen dute. Ikerlarien ustez beste sarrera bat egonen zen, gaur egun blokeatuta dagoena, oraingoa ez bezalakoa. Loizuko Gizonaren gorpua beste sarbidetik sartuko zutela uste dute. Nolanahi ere, kobazuloaren ahotik urruti eta oso sakon dagoen puntu batean utzi zuten Loizuko Gizakia.

Irurtzun Udalbiltzaren energiari buruzko jardunaldian

Euskal Herriko udalerriak energiaren alorrean ahalduntzea, energia berriztagarrien erabilera sustatzea eta pobrezia energetikoari aurre egitea beti egon dira Udalbiltzaren lehentasunen artean. Euskal Herriko udalerriak energia burujabetzaren bidean jartzeko helburuarekin, Udalbiltzak *Udal Proiektu energetiko komunitario eta burujabeak* jardunaldia antolatuko du. Bertan dagoeneko Euskal Herrian martxan diren hainbat proiektu ezagutaraziko dituzte. Gainera, antzeko ekimenak abiatzeko beharrezkoak diren lege, ekonomia eta gizarte gakoak azalduko dituzte. Irurtzungo alkate Aitor Larraza Carrerak herrian energiaren gaia nola landu duten azalduko du energia berriztagarriei buruzko mahai inguruan. Jardunaldia Hernaniko Orona fundazioaren egoitzan eginen da larunbat goizean.

Indarkeria matxistari buruzko batzarrak deitu ditu Itaiak

Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna da azaroaren 25a. Horregatik, Sakanako Itaiak indarkeria matxistari buruzko informazio batzarrak antolatu ditu. Haietan galdera batek jarriko du hizketa gaia: egungo kultura progresista, emakumezkoon ahalduntzea ala indarkeriaren normalizazioa?

Galdera horren inguruan hizketan ariko dira larunbatean, 17:00etan, Lakuntzako Bil-Tokin. Bigarren batzarra, azaroaren 19an, 18:00etan, Altsasuko gaztetxean eginen da. Altsasun pintxo potea egin eta bakarlari baten emanaldia izanen da. Itaiako kideek emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako eguna dela eta azaroaren 25ean, 19:00etan, Iruñean eginen den manifestazioan parte hartzera deitu dute, eta jakinarazi autobus zerbitzua antolatuko dutela.

Ospa mugimenduak 90 kontrol zenbatu ditu

Errepresioaren kontrako Ospa mugimenduak kartelen bidez jakinarazi du garila eta iraila artean 90 kontrol izan direla Altsasun. Haietatik 54 (%60) Guardia Civilak eta 36 (%40) Foruzaingoak jarritakoak direla jakinarazi du. Ospa mugimenduak emandako datuen arabera, aurten Altsasu 280 kontrol izan dira.

Ospa eguneko manifestazioa.

AHTren kontrako seinale berriak herri sarreretan

Negu akaberatik makina bat herriren sarreran trafiko seinale berria dago. Irudi batekin batera herria trenaren alde dagoela eta Abiadura Handiko Trenik nahi ez duela adierazten dute seinaleok. Mezu bera zuten kartelak ere egon dira aurretik, baina aldarrikapena etengabea izan dadin metalezko seinalea jartzea erabaki dute.

Urdiainen jarritako seinale bat. ARTXIBOA

Gora Gora Fest zikloa Irurtzunen eta Uharten

Euskararen Nazioarteko Egunagatik eta euskararen ahozko kultura zabaltzeko asmoz, Euskarabideak 50 ekitaldi baino gehiago antolatu ditu gazte eta haurrendako. Zikloko bi emanaldi Uharte Arakilen eta Irurtzunen izanen dira

IRURTZUN / UHARTE ARAKIL

Euskarabideak euskarazko Gora Gora Fest 2021 kultur zikloa antolatu du Euskararen Nazioarteko Eguna dela eta. Azaroaren 5tik abenduaren 12ra bitartean makina bat jarduera iragarri ditu Euskarabideak, aurrez aurrekoak eta online. Herritarrekiko Harremanetako kontseilari Ana Ollok nabarmendu zuenez, "euskara, gaztelaniarekin batera, Nafarroako gizartea kohesionatu behar duen balioa da, partekatzen dugun balioa; horretaz harro sentitzen gara. Horretarako, beharrezkoa da euskara nafar, erdaldun edo elebidun guztiok batuko gaituen hizkuntza bezala hartzea".

Euskarabidearen zuzendari kudeatzailea den Mikel Arregik azaldu zuen foru geografia guztiko 51 herrietan izanen zuela egoitza jaialdiak. Gainera, online bidezko hiru saio izanen dira. "Ahalegin handia egin da kultura eskaintza hau kultura zirkuituen egoitza izan ohi ez diren herri askotara eramateko", gaztigatu zuen Arregik. Herri txikietara eraman dute, kultur eskaintza murritzagoa dutelako.

Zikloko jarduerak haurrei eta gazteei zuzenduta daude bereziki, familiendako ikuskizunak dira. Belaunaldi berrietan euskara sustatzea eta euskarazko kultur ekimenen eskaintza handitzea Euskarabidearen helburu estrategikoa baita. Horregatik, zikloaren helburua da "eskola bidez euskara dakiten belaunaldi berriei haien herrian euskarazko ekimen artistiko eta interesgarriak izatea".

HAUR ETA GAZTEEI ZUZENDUTA DAUDE JARDUERAK, ORO HAR FAMILIENDAKO IKUSKIZUNAK DIRA



Antolatzaileek diotenez: "euskararekin, gora eta gora beti". UTZITAKOA

Emanaldiak

Azaroak 19, ostirala
19:00 'Improtxou' ikuskizuna gazte eta helduendako, Uharte Arakilgo udaletxeko safeian, ganboikoan.

Euskarazko inprobisazio ikuskizuna da, eta ikuslea parte aktiboa da. Publikoak idatzitako tituluetatik abiatuta, Leire Orbe, Mitxel Santamaria eta Iñaki Maruri aktoreek estilo, genero edo jolas batzuekin bat datorren inprobisazio sorta bat asmatu eta interpretatzen dute. Tdiferenciak kultura eta euskara adin guztietako gazteengana eramateko modu dibertigarria da.

Abenduaren 12an, igandea
17:30 'Kasilda, kartoi artean' familiendako ikuskizuna, Irurtzungo kultur etxean.

Tdiferenciaren proiektu berria da, berdintasunaren eta dibertsitate funtzionalaren aldeko konpromiso argia duena, eta berriz ere handien eta txikien hausnarketara garamatza. Protagonista neskato bat da, bere izenak esan nahi duen bezala, tinko mantentzen dena eta itxaropena inoiz galtzen ez duena, ezta unerik txarrenetan ere. Maite Redinek idatzia eta zuzendutako musika komedia.

Euskarazko Produktuen Katalogoa argitaratu dute

Haur eta gaztetxoei zuzendutako produktuen berri ematen du Euskarazko Produktuen Katalogoak. 0-12 haurrendako eta 12-16 urte arteko gaztetxoendako aldizkariak, musika, liburuak, komikiak, informatika eta aplikazioak, jostailu eta jokoak, filmak, gurasoendako materiala, ikas materialak edota e-bookak daude Katalogoan.

Euskarazko gero eta produktu gehiago daude. Guztiak ezin aldizkari batean jaso eta Katalogoan aukeraketa bat egin dute, erosketa egiterakoan lagungarri izateko. Hala ere, produktu gehiagoren berri izan nahi duenak *www.katalogoa.eus* webgunera jo dezake. Urte osoan zehar eguneratzen da Internet atari hori eta bere buletinera harpidetzeko aukera dago. Euskal Herriko makina bat erakundek sustatzen dute Katalogoa, Sakanako Mankomunitateak barne.

1. AUTONOMIKOA GIZON.

11. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Aluvion - Lagun Artea **2-2**

SAILKAPENA

1. MAILA AUTONOMIKOKO 1. MULTZOA

1	Lagunak	**21**
6	Lagun Artea	**12**

HURRENGO JARDUNALDIA

IGANDEAN

15:45 Lagun Artea -Lagunak *(Zelai Berri)*

Lagun Arteak liderra hartuko du

Cascanten puntu bat lortu eta gero, Lagunak liderra dute aurkari lakuntzarrek.

1. AUTONOMIKOA EMAK.

9. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Altsasu - Amigó **0-5**

SAILKAPENA

1. AUTONOMIKOKO EMAK. 2. MULTZOA

1	Mulier	**27**
10	Altsasu	**0**

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN

15:45 Altsasu - Kirol Sport *(Dantzaleku)*

Altsasuk Kirol Sport du aurkari

Altsasuk sailkapenean laugarren den Kirol Sporten kontra partida zaila du.

FUTBOL PREFERENTEA

9. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Ilunberri - Etxarri Aranatz **1-1**

SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1	San Miguel	**22**
10	Etxarri Aranatz	**13**

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN

15:45 Etxarri - Amigó *(San Donato)*

Etxarri Aranatz Ardoiren kontra

Ilunberrin beste puntu bat bildu ondoren, Etxarrik laugarren den Ardoi hartuko du.

FUTBOL ERREGIONALA

8. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Altsasu - Donezteb e **2-0**

SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 3. MULTZOA

1	Iruña B	**18**
4	Altsasu	**15**

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN

19:00 Beti Kozkor - Altsasu *(Lekunberri)*

Altsasuk Lekunberrin jokatuko du

Donezteberen kontra irabazi eta gero, Beti Kozkor izanen du arerio Altsasuk.

Zeintzuk dira Sakanako kirolaririk hoberenak?

KIROLDEGIA Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak 2019, 2020 eta 2021eko kirolari hoberenak hautatuko ditu, hainbat kategoriatan, eta sakandarrei euren proposamenak aurkezteko eskatu die

Sakanako Mankomunitateak Sanako kirolaririk hoberenak sariak banatzen ditu bi urtean behin. Iaz izan behar zuen sariketak baina pandemiagatik atzeratu egin zen. Hori dela eta, abenduan Olaztin egingo den ekitaldi berezian 2019ko, 2020ko eta 2021eko Sakanako kirolaririk hoberenak aukeratuko dituzte, ondoko kategorietan: 35 urte baino gehiagoko gizonezkoak eta emakumezkoak, 18 urte baino gehiagoko gizonezkoak eta emakumezkoak, 18 urtez azpiko gizonezkoak eta emakumezkoak, kirol talderik onena eta euskara gehien bulkatu duen taldea. Epaimahaiak bi aipamen berezi eman ditzake.

Sakanako kirolaririk hoberenen azken sariketa Ihabarren izan zen, 2018an. ARTXIBOA

Azaroaren 26ra arte

Epaimahaiak aukeratuko ditu kirolari hoberenak, sakandarrek egindako proposamenak aztertu eta gero. Sakanako kirol elkarte, entitate, ikastetxe zein edozein interesatuk egin ahalko ditu proposamenak eta, Amaia Gerrikagoitia kirol teknikariak euren hautagaiak proposatzera animatu ditu sakandarrak. Proposamenekin batera hautagaien curriculuma gaineratu beharko da. Halaber, epaimahaikideek bilera hasi aurretik euren hautagaiak proposatu ahal izango dituzte. Proposamenak azaroaren 26ko 12:00ak arte aurkeztu ahalko dira Irurtzungo Kultur Etxean, Mank-eko Lakuntzako egoitzan eta Altsasuko Kirol Zerbitzuan.

Imanol Arregi entrenatzailea. XOTA

ARETO FUTBOLA

Imanol Arregik gazteak prestatu nahi ditu

Osasuna Magna Xotak Barça ahaltsua hartu zuen. Talde berdeak baja askorekin jokatu zuen, eta deialdian Imanolek jokalari gazteenak eta harrobikoak sartu zituen. Esaterako, Ion Cerviño irurtzundarrak, espero baino minutu gehiago jokatu zituen. "Gazteak trebatu eta aukera eman behar zaie, ateratzea tokatzen zaienerako prest egon daitezen" azaldu zuen entrenatzaile irurtzundarrak. Denboraldiko lehen porrota jaso zuen Xotak. "Hau Lehen Maila da eta hau Barça da, liderra. Izan ditugun lau minutu kaxkarretan golez josi gaituzte" azaldu zuen Imanolek. Gaur, ostirala, Xotak Cordoba du aurkari (18:00etan, LaLigaSports).

Irurtzun, EHko txapelduna

PILOTA Euskal Herriko Kluben Arteko Txapelketa Nazionala irabazi du Irurtzunek, Lemoaren kontra Zumarragan jokatutako hiru partidetan gailenduta. Lau eta erdian Ongayk 18 eta 9 irabazi zion Etxebarriari, buruz buru Retegik 18 eta 9 hartu zuen mendean Aurrekoetxea eta binaka Olaetxeak eta Bergerak 4 tantotan utzi zituzten Elezkano eta Egaña.



PILOTABIZI

Joanes Bakaikoa Satrustegirendako txapela hau berezia da, hobetzen eta disfrutatzen jarraitzeko ilusioa eman diolako. UTZITAKOA

"Txapelak poz handia eta topera jarraitzeko ilusioa eman dit"

JOANES BAKAIKOA SATRUSTEGI PILOTARIA

PILOTA Promozioko Lau eta Erdiko txapela jantzi du etxarriarrak, Zubizarreta III.ari 22 eta 10 irabazita. Garai txarrei buelta emanda, etorkizunerako gogotsu dago

Maider Betelu Ganboa ETXARRI ARANATZ

Promozioko Lau eta Erdia aurkeztu zutenean Joanes Bakaikoa Satrustegiren izena ez zegoen kiniela askotan, baina etxarriarrak garai txarrei buelta eman –Baikoko pilotarien greba eta belauneko lesioa tarteko–, bere buruan sinistu eta igandean, Altsasuko Burunda pilotalekuan, promozioko kaiolako txapela preziatua jantzi zuen, merezimendu osoz final handian Iraitz Zubizarreta Agirreri 22 eta 10 irabazi eta gero.

Finalaren bezperan estrategia argi zenuela esan zenuen: jokoaren ekimena hartu eta dominatzea. Eta aurreikusitakoa guztiz bete zenuen.

Ideiak garbi nituen. Askotan ideiak garbi izaten dituzu baina ez dira nahi bezala ateratzen; finalean, aldiz, nik nahi bezala atera ziren. Dominatu nuen eta horrekin asko irabazi nuen.

"GEHIEN POZTEN NAUENA DA NIRE BURUAREKIN KONFIANTZA HARTZEN ARI NAIZELA"

Burundan zure lehendabiziko partida jokatu zenuen profesional gisa. Asko eskatzen duen frontoia da, *extrañoak* egiten dituena, baina primeran hartu zenion tamaina.

Ezker pareta irregular xamarra denez, banekien sakearekin min handia egin zitekeela. Zorionez nik Zubizarretari min handiagoa egin nion berak niri egindakoa baino. Altsasuko Burundaren oroitzapen polita dut, egia esan.

Hasieran parez pare aritu zineten eta agian zu urduriago zeundela zirudien, baina zazpira berdindu eta gero martxa sartu, eta jarraian 11 tanto egin zenituen. Partida hor apurtu zenuen.

Hasieran biok denetatik egin genuen, tanto onak eta huts batzuk ere bai, baina zazpigarren tantotik aurrera sakearekin min handia egin nion Zubizarretari. Jokoaren ekimena hartu nuen eta dominatu nuen. Berak defentsan aritu behar izan zuen, eta defentsan erasoan baino gehiago sufritzen du normalean.

Jon Mariezkurrena zure botileroak aholku oso onak eman zizkizula aipatu zenuen, tartean Zubizarreta puntatik puntara mugiaraztea, txoko batetik bestera. Gomendio hori eman izana publikoki eskertu zenion.

Zalantzarik gabe. Mariezkurrenarekin oso harreman ona dut, baita kantxatik kanpo ere, eta erabateko konfiantza nuen beragan. Aholku tekniko onak eman zizkidan, lasaitasuna transmititu zidan eta berarekin oso gustura egon nintzen.

Promozioko zure hirugarren txapela lortu duzu. Horietatik bi kaiolakoak dira eta bestea Buruz Burukoa, baina nabarmentzekoa da aurreko bi txapelak 2018an lortu zenituela eta azken txapela hau hiru urteren ondoren iritsi dela.

Txapela guztiak oso garrantzitsuak dira, txapela bat lortzeko lan handia egin behar baita, baina azken hau berezia da. Txapela honek poztasun handia ematen dit, eta hemendik aurrera topera jarraitzeko ilusioa.

Burunda pilotalekuan lagunak zenituen zu animatzen, pankarta eta guzti. Nola ospatu duzu txapela?

Oso eskertuta nago ni animatzera etorri ziren lagunekin, eta baita etorri ezin izan zutenekin ere. Finala larunbatean jokatuko balitz ospakizunetarako hobe litzateke, astelehenean lan egin beharra baitago, baina guztiok disfrutatu genuen.

Txapela zure gurasoendako zela azaldu zenuen finala irabazi bezain pronto.

Ni oso harro nago azken boladan egin dudan lanaz. Gurasoek nire egoera guztia bizi izan dute, lagundu naute eta euren izena atera zitzaidan, beraiengatik eta niregatik ere oso kontentu nagoelako.

"GURASOEK NIRE EGOERA GUZTIA BIZI IZAN DUTE, ETA TXAPELA JANZTEAN GOGOAN IZAN DITUT"

Zure buruan duzun konfiantza horren atzean lan handia egongo da.

Bai, lan ikaragarria. Bizitzan denetatik izaten dira, momentu onak eta txarrak, azken horietatik ere izan ditugu, eta guztiari aurre egin behar izaten zaio. Horregatik, emaitzak ateratzen direnean gehiago disfrutatzen da.

Datorren astean bertan Binakako Txapelketa aurkeztuko dute. Txapelketan arituko zara?

Pilotan atseden gutxi egoten da. Aste hau lasai hartu dut baina datorren astetik aurrera Binakako Txapelketan jarriko naiz buru belarri. Oraindik ez didate aipatu noiz hasiko den edo nortzuk eta nola jokatuko dugun, baina ni topera entrenatzen hasiko naiz, ilusioz.

Hurrengo urterako ziurtatuta duzuna da Lau eta Erdiko Txapelketa nagusian ariko zarela, lehen mailakoan. Igandean Altsasun jantzi zenuen txapelak sari ederra dakar.

Bai, sari polita, ezta? Baina niri gehien pozten nauena da nire burua orain hobeki ikusten dudala, azken boladan maila ona ematen ari naizela eta nire buruarekin konfiantza hartzen ari naizela. Horrek pozten nau batez ere. Hemendik aurrera hobetzen eta disfrutatzen jarraitzeko ilusioa dut.

Ezkurdiak eta Lasok Lau eta Erdiko Txapelketan Altsasun jokatu zuten partidan pilotarien eta teknikarien artean entzuten zen oso ongi omen zeundela. Eta betean asmatu zuten.

Aipatutakoan poztu nintzen, baina ez nuen ilusiorik egin nahi izan txapelketa hasiera zelako. Baina gogoan dut, eta entzuteak ilusioa egin zidan.

Lau eta Erdiko Txapelketa nagusiko finala igandean jokatuko da Bizkaia pilotalekuan. Laso edo Altuna, nor gailenduko da zure ustez?

Nik uste faborito Jokin Altuna aterako dela. Eta normala da. Ezkurdiaren kontra sekulako erakustaldia egin zuen. Nik gutxitan ikusi dut halako erakustaldirik, egia esan, eta faboritoa bera izango da. Baina Laso oso ausart ikusten dut, arerio arriskutsua da. Zaila du, baina aukerak ikusten dizkiot eta irabazi dezake. Txikitako lagunak gara, oso ongi ezagutzen dugu elkar eta berak irabaziko balu poz handia izango nuke.

Sakandarrak Behobia-Donostiara begira

ATLETISMOA Igandean jokatuko da Fortuna Kirol Elkarteak antolatutako lasterketa herrikoi ezaguna. Pandemiaren eraginez parte hartzea %25ean jaitsi da, baina 25.000 korrikalarirekin Donostia korrikalarien festa bilakatuko da

Maider Betelu Ganboa SAKANA

Igandean jokatuko da 56. Behobia Donostia lasterketa ezaguna. Antolatzaileak, Fortuna Kirol Elkarteak azaldu duenez, 25.000 korrikalari daude izena emanda, azkeneko edizioan, 2019an baino %25 gutxiago. Pandemiaren eragina oraindik nabarmena da, baina igandean berriro ere Behobia eta Donostia arteko 20 kilometroko ibilbidea korrikalarien eta atletismoaren festa handia izanen da.

Korrikalari ezagunen artean antolakuntzak Javier Castillejo –hiru aldiz irabazi du Behobia-Donostia, 2015ean 2016an eta 2017an–eta Raquel Lardin nabarmendu ditu faborito nagusi gisa. Behobia bitan irabazi duen Jaume Leiva eta Nuria Lugueros izango dira haien aurkari gogorrenak.

Guztira 1.436 nafarrek eman dute izena, tartean makina bat sakandarrek. Egunotan ohi baino korrikalari gehiago dabiltza gure herriko bide, xenda eta errepideetan iganderako hitzordurako prestatzen. Eta Dantzalekuko pistetan zer esanik ez. Arraroa da bertara joan eta inor korrika egiten ez ikustea.

Pandemiagatik irteerak mailakatuak izango dira, 9:30etik aurrera.

Marina Zabala Donostiako Nazioarteko Krosean. PEIO AGIRREZABALA

Katarain eta Zabala, krosean

Igandean jokatu zen 65. Donostiako Nazioarteko Kros prestigiotsua, Lasarteko Hipodromoan, eta mundu mailako korrikalari garrantzitsuekin batera hainbat sakandar aritu ziren lehian. Aurreikusi bezala, atleta afrikarrak izan ziren protagonista.

Gizonezkoen txapelketa absolutuan lehia ederra izan zuten Soriako Nazioarteko Krosa irabaztetik zetorren Rodrigue Kwizera korrikalari burundiarrak eta Thomas Ayeko korrikalari ugandarrak. Faboritoak hasieratik kokatu ziren aurrean. Hiru bueltaren faltan Adal Mechaalek erasoa jo eta Kwizerak eta Ayekok jarraitu zioten. Emozio handiko lasterketan Kwizera (26:56) soilik segundo baten aldearekin gailendu zitzaion Ayekori (26:57). Goierri Garaia taldeko Beñat Katarain lakuntzarra 40. sailkatu zen (32:49).

Emakumezkoetan Zenebu Fikadu eta Zerfe Wondemagegb etiopiarrek lehia oso estua izan zuten. Azkenean Fikaduk irabazi zuen (25:27) Wondemagegberi 11 segundo aterata (25:38). Goierri Garaia taldeko Marina Zabala lakuntzarra 32. postuan sartu zen (34:02).

Sakanako Futbol Topaketen azken edizioko partida bat, Uharte Arakilen. ARTXIBOA

Benjamin mailako Sakanako Futbol Topaketak, abian

FUTBOLA Igandean hasiko dira Mank-ek antolatutako benjaminen mailako topaketak, Dantzalekun

Igandean hasiko dira Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak antolatutako Sakanako Futbol Topaketak. Aurten soilik kategoria bakarrean jokatuko dira, benjaminen mailan. Izan ere, kimuen mailako taldeak –Lagun Artea, Etxarri Aranatz eta Altsasu– Nafarroako Federazioko Kimuen Futbol 8 Txapelketan ari dira lehiatzen, federatuta.

Benjaminen mailan, hiru dira Sakanako areto futbol 8 eta futbol 8 topaketetan parte hartuko duten taldeak: Etxarri Aranatz, Altsasu (bi talde) eta Olaztiko Sutegi. Topaketetan guztira hiru itzuli jokatuko dituzte, eta aipatu hiru herrietan txandakatuta jokatuko dituzte jardunaldietako partidak.

Lehen jardunaldia

Lehen jardunaldia Dantzalekuk hartuko du, igandean, 10:00etan. Ordu berean jokatuko dira jokoan dauden bi partidak. Bata Altsasu A eta Olazti taldeen artekoa izango da, eta bestea Altsasu B eta Etxarri Aranatz taldeen artekoa.

Helburua

Sakanako Futbol Topaketak Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak antolatzen ditu Sakanako futbol klub eta taldeen laguntzarekin. Lehenik eta behin futbola eta kirola sustatzea da helburua, eta, bide batez, etxeko txikienei txapelketa batean parte hartzea ahalbideratu nahi zaie.

Baina hau ez da txapelketa lehiakorra. Horregatik, ez da sailkapenik egiten. Sakanako beste herrietako neska-mutikoekin futbolean arituz ongi pasatzea da asmoa eta Sakanako herri ezberdinetako gaztetxoen arteko harremana sustatzea.

Malerrekako Rallysprintean zorte gehiegirik ez

AUTOMOBILISMOA Soilik Besgak eta Goikoetxeak lortu zuten proba despeditzea, bi minutu pasa galduta

Larunbatean V. Malerrekako Rallysprinta jokatu zen. Antolakuntzak prestatutako 16 kilometroko ibilbide gorabeheratsua lau aldiz osatu behar izan zuten taldeek, bi norabide bakoitzera. Parte hartzea handia izan zen.

Lasterketa etxean geratu zen, Malerreka Motorsport taldeko Iñaki Zozaia eta Xabier Andueza (Porsche 911 GT3 2010) gailendu baitziren (36:53.400).Sakandarren artean soilik Eneriz Besga pilotuak eta Jabi Goikoetxea kopilotuak (Citroên Saxo VTS) lortu zuten proba despeditzea (44:59.100), lehen eremuan bi minutu galduta.

Iban Lopez de Goikoetxeari eta Luis Zabalzari (Renault 5 GT Turbo) palierra apurtu zitzaien lehen eremuko 5. kilometroan. Arkaitz Irigoien eta Hodei Ariztegi (Renault Clio) bigarren eremuan bidetik atera ziren eta Iker Askargorta eta Aitor Fernandez (Opel Astra) hirugarren eremuan erretiratu ziren, suspentsioan arazoak izan eta gero.

Iban Lopez de Goikoetxearen R5 Turboa, palierra apurtu eta gero. UTZITAKOA

2021/2022 denboraldiko CBASK Jatorman taldea. Aldaketa asko izan dira taldean, eta egokitzapenerako gogotsu daude. UTZITAKOA

CBASK Jatorman, ligara egokitzen

SASKIBALOIA Joan den urteko denboraldian txapeldunordea izan zen taldea, baina bost baja izanda, taldea berregituratzeko lanetan murgilduta daude altsasuarrak. Helburua taldea ontzea da, prozesua ongi eginez gero ongi ibiliko diren itxaropenarekin

Maider Betelu Ganboa ALTSASU

Autonomien Arteko Saskibaloiko Bigarren Mailako seigarren jardunaldia jokatuko da asteburuan. CBASK Jatorman talde altsasuarrak Larraona Claret izanen du aurkari, larunbatean, 18:00etan, Larraona kiroldegian.

Joan den urteko denboraldia ez du erraz ahaztuko CBASK Jatormanek: Altsasun jokatutako Lauko Finaleko final handian txapeldunordea izan zen San Cerninen kontra alde txikiaz galdu eta gero (81 eta 74). "Zalantzarik gabe, oso zaila izango da aurreko urteko denboraldira gerturatzera. Presio horrekin jokatzea ere ez da ona. Taldea aldatu zaigu, liga ere aldatu da, talde berriak daude... Denboraldi bakoitza ezberdina da eta aurtengoa nola doan, joango gara ikusten" azaldu du Iosu Mendiola Marañon entrenatzaileak.

Aldaketak

Autonomien Arteko Bigarren Mailan Nafarroako eta Errioxako taldeak lehiatzen dira. Aurten hamalau dira jokatzen ari diren taldeak. Aurtengo denboraldian, pandemia zela eta, ia bakarrik talde nafarren arteko partidak jokatu ahal izan ziren. "Mugak itxita zeudenez, Errioxara joateko arazoak zeuden. Horregatik liga gehiengoa nafarren artean jokatu genuen. Egoeraren aurrean ahal zena egin zen. Baina aurten talde guztiak gaude martxan, Errioxakoak eta Nafarroakoak" dio Mendiolak. Nafarroako taldeen artean San Ignacio, Ardoi eta Humiclima aipatzen ditu aurtengo faboritoen artean. "Nafarroako taldeen artean joan den denboraldiko joera berak jarraituko duelakoan nago. San Ignacio aurrean egongo da eta Ardoirekin ikusiko dugu zer gertatzen den. Goiko mailetan taldeak ditu Ardoik, eta zein jokalari deitzen duten goiko mailetan aritzeko, horren arabera talde hobea edo okerragoa izaten dute. San Ignacio eta Humiclima ere Lauko Finalean egon ziren joan zen urtean eta aurten ere hor egongo dira ziurrenik" uste du Mendiolak.

"TALDEA ONTZEKO PROZESUA DUGU AURRETIK, PAZIENTZIAZ HARTU BEHARREKOA"
IOSU MENDIOLA

Errioxako taldeez ez du informazio gehiegirik. "Batzuk berriak dira, beste batzuez duela bi urteko informazioa dugu eta horrela ondorio gutxi atera daiteke, baina joango gara ikusten. Logrobasket eta Clavijo pixka bat gainetik egongo direla aurreikusten da, Cenicero eta Alfaro, dirudienez, pixka bat beherago. Eta Miranda de Argako Cronos Baloncesto taldea ere goian egongo dela dirudi" aipatu du. Hortaz, txapelketa irekia aurreikusten da.

Egokitzapen urtea

CBASK Jatorman, non kokatuko da? Taldeek boladak izaten dituzte. Joan zen urteko CBASK Jatorman talde oso ona zen. Tartean Iñigo Zabalo Oiarbide altsasuarra zegoen, profesional izandakoa. Baina aurten aldaketa asko izan dira. "Iñigo aurten ez da momentuz gurekin ariko. Beste jokalari batek adinagatik utzi du eta beste batek kanpora joan behar izan du lan egitera, Dublinera. Beste jokalari bat aurreko denboraldiaren bukaeran lesionatu zen eta aurten ezingo du jokatu, eta beste batek ere ez du jokatuko. Hortaz, aurreko urteko bost jokalari gutxiago ditugu aurten, baina duela urte batzuk gurekin aritu ziren bi jokalari errekuperatu ditugu eta azpiko taldetik, senior mailatik, beste bi jokalari igo dira" aipatu du Mendiolak. Horiek dira aldaketak.

Hortaz, taldea dirudiena baino gehiago aldatu da urte batetik bestera. "Nahiz eta sei-zazpi jokalari mantendu, jokalari horien rola ere aldatu da, taldean garrantzia gehiago hartu beharko baitute. Gazteak ere taldean egokitzen joan beharko dute, taldera itzuli diren jokalariak ere moldatu beharko dira eta guztia kontuan hartuta, taldea ontzeko prozesu bat dugu aurretik. Gainera, ez dugu presarik izan behar. Pazientziarekin hasi behar dugu. Esaterako, joan den urtean erraz aterako genukeen partida bat aurten gehiago kostako zaigu, baina uste dut egokitze prozesua ongi eramaten badugu denboraldi erdi-bukaera aldera ongi ibiliko garela" nabarmendu du entrenatzaileak.

"EGOKITZE PROZESUA ONGI EGINEZ GERO, DENBORALDI ERDIAN TXUKUN IBILIKO GARA"
IOSU MENDIOLA

Hortaz, egokitzapen urtea izango da eta taldea gogotsu dago. "Aurreko urtean bigarren sailkatu bazara aurtengo helburuak edo aurreikuspenak jaistea kostatzen da, baina prozesu horretan gabiltza eta nik uste nahiko ongi eramango dugula. Aurtengoa denboraldi ezberdina izango dela ulertu behar dugu eta agian ondo aterako dela edo agian ez hain ondo. Ikusiko dugu" ondorioztatu du Mendiolak.

Beraz, aurtengo helburu argiak "ahalik eta lan onena egitea eta taldea ontzea" dira.

Hasiera

Asteburuan txapelketako seigarren jardunaldia dago jokoan. Hiru jardunaldi jokatu ditu talde altsasuarrak, beste bi partidak atzeratu dituztelako. "Zizur Ardoiren kontra nahiko erraz irabazi genuen, baina Liceo Monjardinen kontra gehiago kosta zitzaigun eta gutxigatik bada ere, partida joan zitzaigun" adierazi du Mendiolak. Basket Navarraren kontra ere galdu egin zuten. Bihar, larunbata, Larraona Claret dute aurkari.

Aurten Logroño eta Miranda de Ebro aldera atera beharko dira partidak jokatzera. "Planen bat egingo dugu, halako irteerak politak direlako. Gure artean dugun giroa bikaina da. Inor ez da honetaz bizi behar, eta ongi pasatzeko ere gaude honetan" dio, irribarrez, Mendiolak.

Etorkizuna

Altsasuko CBASK saskibaloi kluba indartsu dago. "Txikiek saskibaloia aukeratzen segitzen dute, harrobiko taldeak martxan daude eta etorkizun nahiko polita sumatzen da. Saskibaloian hasten direnen kopurua urtetik urtera handiagoa da, eta hori pozgarria da. Gero hori guztia ongi mantentzen bada eta ondo eramaten bada, hor dago etorkizuna" argi du arbizuarrak.

CBASK

- **Jokalariak:** Unai Mundiñano (4), Ander Gabirondo (7), Jon Otermin (10), Aitor Calleiras 11), Jorge Misiego (12), Aimar Azpiroz (13), Moha Aboufaris (14), Iker Claver (15), Ander Hormeño (17), Pello Iraola (18) eta Unai Flores (19).
- **Entrenatzailea:** Iosu Mendiola.
- **Laguntzaileak:** Unax Ijurra eta Igor Martinez.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 12

ALTSASU **Gozamenez programak 20 urte: Gozamenezen kutxa.**
18:00etatik 21:00etara, Intxostiapunta gazte gunean.

ALTSASU ***Loizuko gizakia: espeleologia ezagutzen* erakusketaren musutzea. Sergio Martinez Nafar Espelologi Batzordeko presidentearen bisita gidatua.**
18:00etan, Iortia kultur gunean.

ETXARRI ARANATZ ***Txanogorritxutik otso emera* Aitziber Garmendiaren antzezlana.**
19:00etan, kultur etxean.

ALTSASU **Mirari Martiarenaren eta Idoia Torregarairen *Bakean dagoena bakean utzi* bakarrizketa saioa.**
Altsasuko EHEk antolatuta.
19:00etan, Iortia kultur gunean.

IRURTZUN **San Martin jaiak. Karaokea, bokatada eta Etxeko DJ.**
20:00etatik aurrera, Larrazpin.

LARUNBATA 13

IRURTZUN **Udazkeneko Plaza Dantza.**
Ortzadar euskal folklore elkarteak antolatuta.
12:30ean, Gernika plazan (eguneraldi txarrarekin karpan).

LAKUNTZA **A25. *Egungo kultura progresista. Emakumeon ahalduntzea edo indarkeriaren normalizazioa?* Asanbada informatiboa.**
Itaia Sakanak antolatuta.
17:00etan, gaztetxean.

ALTSASU **Gazte agenda: Futbolin txapelketa.**
18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

ALTSASU **Orquesta de Cámara del Empordàren *Concierto a tempo d'umore* ikuskizuna.**
Azken sarrerak.
19:30ean, Iortia kultur gunean.

IRURTZUN **San Martin jaiak. Kontzertuak: Jaleo eta Libertad condicional.**
22:30ean, Larrazpin.

IGANDEA 14

ALTSASU **Araia – Aratz – Ajuria ibilbide zirkularra eginen du Altsasuko Mendigoizaleak taldeak.**
08:00etan, egoitzatik.

SAKANA **Patata operazioa: Iruñeko Alegriako peñako kideak jakiak bilduko dituzte.**
09:00etatik 14:00etara, Urdiaindik Satrustegira.

OLAZTI **Gazteendako eta helduendako escape rooma.**
Sakanako Gizarte Zerbitzuak antolatuta.
Goizez eta arratsaldez, kultur etxean.

ALTSASU **Hodei Magoaren *Ezinezkoaren logika* ikuskizuna.**
17:00etan, Iortia kultur gunean.

IRURTZUN **Oscar Terolen *Por comentarlo!* antzezlanaren emanaldia.**
19:00etan, kultur etxean.

ASTELEHENA 15

ALTSASU **Pentsio duinen aldeko elkarretaratzea.**
12:00etan, Zumalakarregi plazan.

HIRIBERRI ARAKIL **Adimen emozionala tailerra. Ohitura osasungarria: estresa, emozioak eta osasuna kudeatzea. Hizlaria: Leticia Garcés Larrea.**
18:00etatik 19:20era, kontzejuan.

ASTEAZKENA 17

ALTSASU ***Gurea falangista zen* Alberto Barandiaran Amillanoren liburuaren aurkezpena. Solasaldia egiaren eta Izaskun Etxeberria idazle eta irakaslearen artean.**
18:30ean, Iortia kultur gunean.

OSTEGUNA 18

LAKUNTZA **Liburu dasta: Antxiñe Mendizabalaren *Odolekoak* liburuaren inguruko literatur saioa.**
Sakanako Mank-eko berdintasun eta euskara zerbitzuek antolatuta.
18:00etan, Tximonena jatetxean.



ALTSASU ***Loizuko gizakia: espeleologia ezagutzen* erakusketa.**
Azaroaren 12tik 28ra. Astelehenetik ostiralera 17:00etatik 20:00etara, larunbatetan zuzenekoa baina ordu bat lehenago eta igandetan 18:30etik 19:30era. Iortia kultur gunearen erakusketa gelan.

ARTXIBOA

ALTSASU **Altsasu BHI, Sakana LHI, Korazonistak eta Iñigo Aritza ikastolako DBH 3. mailako ikasleek egindako *Sexualitatea* erakusketa.**
Azaroaren 28ra arte. 17:00etatik 21:00etara, Intxostiapunta gazte gunean.

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO NAGUSIAN

***Las leyes de la frontera* gaurkotasunezko filmaren emanaldia**
Ostirala 12: 19:30

***Las leyes de la frontera* gaurkotasunezko filmaren emanaldia**
Igandea 14: 19:30

La crónica francesa gaurkotasunezko filmaren emanaldia
Osteguna 18: 19:00

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO TXIKIAN

Supernova zineforum filmaren emanaldia
Igandea 14: 19:30

Titane zineforum filmaren emanaldia
Osteguna 18: 19:00

ARRASATE Tokikom Sariak eta Komunitatea josten jardunaldia.
10:00etatik aurrera, teknologia parkean eta zuzenean guaixe.eus-en.

IRAGARKI SAILKATUAK

HIGIEZINAK

SALGAI

Pisua bajerarekin salgai: Etxarri Aranazko Santakitz kalean. Interesatuek deitu 669 156 117 tfnora.

Etxe adosatua salgai: Etxarri Aranazko Aldapasoro auzoan. Interesatuek 664 781 794 tfnora deitu

LANA/NEGOZIOAK

LAN ESKAINTZA

Tabernarako zerbitzaria behar da: Asteburuetan eta parranda egunetan lan egiteko. Euskalduna eta aritua. Deitu 948 461 228.

Etxarri Aranazko Udalak aisialdiko begiraleak kontratatzeko oposizio lehiaketa egingo du: Gaztetxoko proiekturako (11-16 urteko gazteei zuzendutakoa) udalak 3 begirale kontratatu nahi ditu eta proiektu puntualetan behin-behineko kontratazioak egiteko lan poltsa osatu nahi du ere. Kontratua azarotik maiatzera arte luzatuko da, biak barne. Begiraleek txandaka lan egingo dute, bikoteka. Lanaldia partziala izanen da eta zerbitzuaren beharretara egokituko da. Lanpostua C mailari dagozkion lansaria izanen du. Lanpostuak euskarazko nahitaezko hizkuntza eskakizun hau du: C1 maila (ahozkoa). Interesatuek izena emateko aurkeztu behar den instantzia eta bestelako agiriak azaroaren 16ko 12:00ak baino lehen egin beharko dute, aurrez aurre Etxarri Aranatzko udalean edo egoitza elektronikoan *https://etxarriaranatz.egoitzaelektronikoa.eus/info.*1

IKASTAROAK

Estresa, emozioak eta osasuna kudeatzeko ikastaroa: Ohitura osasungarriak landu adimen emozionalaren bidez. Publiko guztiarentzat. Hiriberri Arakilgo kontzeju etxean azaroaren 15ean eta 22an, 18:00etatik 19:30ra. Izen ematea 948 500 101 telefonora deituz, 634 584 226 WhatsAppera edo *info@arakil.net / arakil-kultura@gmail.com* emaietara idatziz.

Biko-teka tailerra Iruñean: Liburu ilustratu bat nola pentsatu, idatzi, sekuentziatu, marraztu eta argitaratu daitekeen landuko da lau egun eta erdiko ikastaro trinko honetan, idazle-ilustratzaileak bikoteka jarrita. Idazle eta ilustratzaileek parte hartu dezakete, bakarka zein binaka. Bakarka aurkezten direnei bikotea aurkituko diegu, posible den heinean. Parte hartzaileek ez dute zertan lan argitaraturik izan behar eta aurkezten diren hautagaien artean egile berriak lehenetsiko dira. Parte hartzaileek euskaraz jakin behar dute. Galtzagorri elkarteko bazkide izatea baloratuko da. 2022Ko urtarrilaren 24tik 28ra, Iruñeko Kondestable Jauregian. Izena emateko epea azaroaren 26an amaitzen da. Informazio gehiago *galtzagorri@galtzagorri.eus* emailera idatziz, 943 471 487 tfnoan edo *www.galtzagorri.eus* web orrian.

OHARRAK

Nafarroa Oinez lagundu: Lizarrara joan ezin izan zutenek eta Lizarra Ikastola lagundu nahi dutenek horretarako aukera dute "Nafarroa Oinez Fundazioa / 03259" Bizum kontuaren bidez edo *www.nafarroaoinez.eus* web orriaren bidez.

Patata operazioa: Azaroaren 14an, igandearekin, Iruñeako Alegria peñak papata operazioa egingo duela jakinarazi du. Urdiain eta Satrustegi artean jakiak biltzen egonen dira igande goizean eta eguerdian. Animatu.

Etxarri Aranatzko Udalak egoera ahulean dauden ikasleentzako dirulaguntza: Eskolaz kanpoko jardueretan parte hartu ahal izateko, 2021-2022 ikasturteko neguko jardueretarako, eskabideak aurkezteko epea 2022ko urtarrilaren 20an amaitzen da.

Etxarri Aranazko Udalak entitateendako dirulaguntza deialdia: Kultur, kirol eta jendarte erakundeek eskaerak abenduaren 31ko 14:00ak arte aurkez ditzakete. Ikasturte honetan garatuko dituzten jarduerak dira diruz lagunduko direnak. Oinarriak udalean bertan edo *www.etxarriaranatz.eus* web orrian ikus daitezke.

Kubako Osasun Sistema Publikorako material higieniko sanitarioa erosteko diru bilketa: "Kubarako xiringak" kanpainaren arrakasta ikusita MESC-ek (Estatuko Kubarekin elkartasuna mugimendua) abiatutako kanpaina berria martxan da. AEBen blokeoak eta pandemiak sortutako egoeragatik Kubako Osasun Publikoa oso kaltetuta dago. Kubako Ministerioak helarazitako zerrendan agertzen diren materialak erosteko dirua behar da. Euskadi Kuba GKE-ak babestutako kanpaina, beraien kontu korrontea diru ekarpenak egiteko: ES35 3035 0134 4313 4005 9271

iragarki@guaixe.eus

www.iragarkilaburrak.eus

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKI@GUAIXE.EUS

WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

- Asteazkeneko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- GUAIXEk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen gorabeheren erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.

- Iragarkiak Guaixe paperean eta guaixe.eus-en argitaratuko dira.
- Iragarki laburrak: 3 euro aste bakoitzeko (BEZ barne).
- Epea: aste bereko asteazkeneko 13:00ra arte.

OROIGARRIA

Norberto Lopez de Goikoetxea Galarza

I.urteurrena

(2020ko azaroaren 10ean hil zen)

Beti egongo zara gure bihotzetan

Zure familia

JAIOTZAK

- **Elaia Fernandez Gutierrez,** azaroaren 3an Irurtzunen
- **Yara Montecelo Casillas,** azaroaren 5ean Lakuntzan
- **Mirai Lizarraga Yamaguchi,** azaroaren 6an Arbizun
- **Arane Blas Miguel,** azaroaren 10ean Lakuntzan

HERIOTZAK

- **Amadora Barriga Vinagre,** azaroaren 4an Altsasun
- **Dorinda Varela Abad,** azaroaren 9an Altsasun

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo eskelak@guaixe.eus

- Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80€ / 130,68 € prezio hauek BEZa barne dute.
- Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

Antxiñe Mendizabal Aranburu, 'Odolekoak' eleberriaren idazlea. UTZITAKOA

Isilpean gordetako istorioak

Nafarroan girotu du Antxiñe Mendizabal Aranburuk 'Odolekoak' eleberria. Hiru garai desberdinetako emakumeak eta haien arteko harremenak aurkezten ditu; matrioskak. Ostegunean Sakanara itzuliko da, oraingoan, liburua aurkeztera

Erkuden Ruiz Barroso SAKANA

"Liburua hartzen duen pertsonak ahalegin bat egiten du, inplikatzen da, gozatzen du edo ez. Irakurlearekiko nolabaiteko errespetu bat sortzen da". Irakurleak aurrez aurre egotean Antxiñe Mendizabal Aranburu idazlea errespetu hori "nabarmenagoa" bihurtzen dela konturatu da. "Horregatik, niri eragiten dit hurrengo proiektuak kontuz, maitasunez eta irakurlearekiko errespetu hori manteduz egitea". Argitaratzen den horretan benetan sinistea, "daukadan onena ematea".

Idazlearen azken lana *Odolekoak* eleberria da, ostegunean, azaroaren 17an, 18:00etan, Sakanako irakurleekin elkartuko da, Lakuntzako Tximonena jatetxean, Sakanako Mankomunitatearen euskara eta berdintasun zerbitzuek antolatutako Liburu dastan. Nobela Nafarroan aurkezten duen bakoitzean berezia dela esan du idazleak, herrialdean kokatzen bada istorioa, 1940ko hamarkadan hasi eta gaur egun arteko denbora tartean. "Ibilbide luze samarra. Ez zen nire lehenengo asmoa izan, baina luzatu egin da".

Harremanak

Hiru belaunaldietan zehar eta hiru emakumeren bidez ama eta alaba arteko harreman sakonak, gogorrak eta hunkigarriak agertzen dira *Odolekoak* eleberrian. Matilde, Teresa eta Amaia dira protagonistak. "Idaztearekoan lehenengo bulkada, nire kasuan, behintzat, nire bizipenetan dago. Ez hainbeste autobiografikoa, baina norbere bizipenetan oinarrituta dago". Liburuan esperientzia pertsonala eta kontzientzia hartze bat dago bai pertsonaien aldetik bai idazlearen aldetik: "Esperientzia pertsonal horretatik badago testuinguru politiko eta sozial bat baldintzatzen gaituena. Hasieran ez nintzen oso kontziente, baina gai hauen atzean pisuzko ideologia bat dago". Nobelan argi ikusten dira garai desberdinak daudelako.

Matrioska errusiar panpinen irudia oso garrantzitsua izan zen nobelaren bilakaera. "Ez zegoen aldez aurretik pentsatuta. Idazten hasi nintzenean ez nuekan oso argi nora joango nintzen. Baneukan irudikatu nahi nituela ama eta alaba batzuk, geroz eta gehiago mimetizatzen zirenak eta antzeko egoerak errepikatzen zituztenak. Antzeko erantzunak ematen zizkietela antzeko egoerei". Mimetismo hori bazegoen, eta konturatu zen jolasten ari zela "guztiok daukagun baina ohartzen ez garen etxeko memorioarekin".

Mimetizazioa matrioskarekin irudikatu zuen. "Hiru emakume berdin berdinak, bata bestearen barruan preso daudenak, eta antza handia daukatenak". Presondegi horretatik ateratzeko modu bakarra leku horretatik ateratzea da, bere bidea egitea. Matrioska, beraz, inflexio puntu bat izan zen, "nobelari zentzu jakin bat eman zioten".

Hiru emakume protagonistak ez ezik, eleberrian pertsonaia asko daude. Nobela bukatzean pertsonaien zerrenda egin zuen Mendizabalek, eta ordenatzerakoan "unibertso desberdinak" zeudela konturatu zen: "Konstelazioak deitu diegu: familia, auzoa, hiria…". Unibertso batekoak beste batekin ukitzean, mundu hori aldatu egiten da. "Elkarreragiten zuten pertsonaiak munduak aldatuz". Elkarren artean ematen diren harreman horiek liburuaren beste oinarrizko ideia bat dira.

Izkutuko istorioak

"Isilpean gordetako istorioak dira. Izkutukoak. Normalean, askotan, bertsio ofiziala kontraesanean egon direla erakusten dutenak. Zentsuratuak, isilpekoak, gordeak… izan dira, estatus edo ideologi nagusiarekin bat ez zetozelako". *Odolekoak* nobelan kontatzen diren istorioak desberdinak dira, izkututakoak zirelako. "Horregatik da hain garrantzitsua historian, literaturan eta bizitzan bertsio ofizialaren kontrakoak direlako".

Mendizabalek gerra amabitxiei buruz hitz egin du. "Oso zabaldua egon da gerra guztietan. Emakumeak gatazkan duten lekua adierazten du: gizonezkoak sostengatzea". Horien berri bazuen, eta nobela amaitzean "oso sorpresa polita" izan zuen lagun baten bidez gutunez betetako kutxa bat jaso zuelako. "Ikaragarria da hor izkutatzen diren istorioak". Gerra eta frankismo garaian oso ondo antolatuta zegoen, "ez zen kasualitatea zenbait emakumek gutunak idazten hastea". Gerra gizonezkoei adoera mantentzeko eta errealitatea izkutatzeko "muntaia" bat zen. "Asko desesperatuta zeuden".

Istorioa gordinak kontatzen ditu. "Bizipen gordinak dira, garai gordin batean". Istorioak ez dira autobiografikoak, baina bere barnean Matilde, Teresa eta Amaiaren emozio horiek guztiak dituela aipatu du. "Nahiz eta ni neu ez izan, nire barruan daude eta denak sentitzen ditut". Nobelak egiatik emozio horiek berak sentizten dituela dauka, "pertsonaia horiek nire baitan ateratzen dira".

Aurrez aurretik ez zituen liburuan agertzen diren lekuak ezagutzen. Idazten ari zen bitartean ezagutu zituen, besteak beste, Iruñea, Lizarra, Urdiain… "Leku hauek hain ongi ez ezagutzeak fikzioa egiteko lagundu dit. Asko jakingo banu datuz beteko nuke". Bere metodo "txikia" zen egoera eta lekuak irudikatu eta idatzi, eta gero leku horietara joaten zen "egingarria" zen ikustera.

BAZTERRETIK

MIKEL MAIZA RAZKIN

Bildumazale nahi gabe

Orain dela urte bat Iruñean nintzen, komiki dendan. Han Harlock kapitainaren komiki bat aurkitu nuen: *Arkadiaren memoriak*. Oso gustuko izan nuen ikusi nuenetik. Hala eta guztiz ere, komiki hark zerbait arraroa bazuen... Komikia erosi eta besapean eraman nuen Iruñeko Gotorlekuko bankutxo batera han irakurtzen hasteko. Irakurtzen nuen bitartean komikiak susmo arraroak piztu zizkidan. Ez bainuen istorioa ulertzen.

Harlock kapitaina (Uchu Kaizoku Kyaputen Haarokku Japonian) manga mitikoa da. Leiji Matsumotok sortu zuen 1977an eta bi urte egon zen *Play Comic* aldizkarian astero kapituluka kaleratzen. Japoniar erara. Bizitza motza izanda ere, japoniarrek oso gogoko izan zuten.

Harlock kapitaina famatua bihurtu zen. Hemen aurkitu nuen lehen bitxikeria: *Arkadiaren memoriak* formatua oso handia zen 1977ko manga izateko. Album bat bezain handia baitzen. Normalean manga formatua txikia eta potoloa izaten da, koadernotxo txiki bat balitz bezala.

Berehala aurkitu nuen honen erantzuna: komiki hau Jérôme Alquié komikigile frantsesak marraztu zuen! Harlock Kapitaina 1978an anime bihurtu zuten. Anime hau mundu guztira iritsi zen 80ko hamarkadan animeak izan zuen boom handiaren ondorioz. Jérômek txikitan ezagutu zuen Harlock kapitaina. Gogoko zuela ikus daiteke bere marrazkietan arreta jarriz gero: pertsonaien diseinuak Leiji Matsumotoren estilo zaharra gogorarazten badute ere, orrialdeen konposizio dinamikoa eta kolore biziek argi uzten dute komiki hau ez dela 1978ko Harlock Kapitaina!

Komikia itxi nuen momentu batez eta irribarre batekin komikiaren aurrea eta atzea miatu nituen.

"Ze istorio polita Jérômena. Txikitan irakurtzen zuen pertsonaiaren komikia argitaratu du, haren benetako autorea ezagutu eta guzti" pentsatu nuen. Orduan, komikiaren bizkarra ikusi eta azkenean konturatu nintzen zer zen arraroa komiki hartan: "2/3" idatzita zuen txikian. Bigarren alea nuen esku tartean. "Mekagueeeeen" bat eskapatu zitzaidan. Horrela hasi zen ene Harlock kapitainaren komiki bilduma.

"Martirio opari bat izan da"

EVA AZPILIKUETA MARTÍNEZ AKTOREA

'La casa cuartel de Bernarda Alba' antzezlanean Martirio izanen da. Lorcaren lanaren berrirakurketa egin du Fermín Cariñena Asiainek

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

La Casa de Bernarda Alba Federico García Lorcaren klasiko bat da. Idazlearen antzezlanik errepresentatuena dela esan daiteke. Fermín Cariñena Asianek klasikoaren adaptazioa egin du, eta *La casa cuartel de Bernarda Alba* antzezlana sortu du hamar nafar aktore protagonista direla. Tartean Eva Azpilikueta Martínez aktore altsasuarra dago. Martirioaren papera egokitu zaio. "Opari eta erronka bat". Lana igandean mustu behar zuten, 19:30ean, Atarrabiako kultur etxean, baina sarrerak denbora gutxian agortu ziren, eta bigarren emanaldi bat eginen dute bihar, larunbata.

Nola iritsi zinen proiektu honetara?

Fermin Cariñena zuzendariak deitu zidan. Aurretik ezagutzen zuen. Eskuartean proiektu bat zuela esan zidan, eta ez zekien aterako zen edo ez. Erokeri bat zen: hamar aktore eszenatokian. Aktore zerrenda esan zidan, eta baietz esan nion. Ezetz esan ezin zen proiektu bat zen, eta nire ohiko lan taldetik ateratzea suposatzen zuen. Aktore zerrenda izugarria da; Nafarroako aktore ikaragarriak daude: Marta Juaniz, María Álvarez, Leire Arraiza, Montse Zabalza, Iratxe García Uriz, Laura Villanueva, Leire Lareki, Asun Abad y Jaione Urtasun. Beteranoak eta gazteak. Gainera, Martirioaren papera eman didate. Pertsonaia izugarria da, eta niretako erronka handi bat normalean pertsonaia argitsuak eta maitakorrak interpretatzea egokitu zaidalako. Baina pertsonaia honek duen iluntasuna, gaiztokeria, inbidia...

Nola izan da prestatzea?

Horretan gaude. Oso prozesu ona izaten ari da. Opari handi bat. Aktore handi hauek lan egiten ikustea izugarria da. Ikasten joaten zara. Pertsonaia bat hartzen duzuenean analizatu behar duzu, probatu behar duzu, eszenatokiaren gainean jarri eta beste pertsonaiekin aritu. Gauza bat da zuk hartzen duzun modua eta beste bat beste pertsonaiekin nola aritzen den. Izugarria izaten ari da. Zorionak Ferminendako eta Jabier Txokarro ekoizlearendako horrelako proiektu bat egiten ausartzeagatik. Aspaldi ez zela lan hain handia egiten Nafarroan.

Klasiko bat da. Zertan desberdintzen da?

Eva Azpilikuketa Martínez aktorea 'La casa cuartel de Bernarda Alba'-ren eszenatokian.

Izenburua *La casa cuartel de Bernarda Alba* da. Beraz, kuartel bat da. Aiora Ganuzak egindako jantziteritik hasi, eszenografia... jendeari deigarri iruditu zaio. Ezin dut askoz gehiago kontatu. Normalean Bernarda Alba Andaluziako etxe batean islatzen da, dena beltza. Hemen beste toki batetik proposatzen da. Eskemak apurtzen ditu. Deskontestualizatu da, beste kontestu batean dago, oso militarra. Energia oso militarra da ere. Bernarda inoiz baino dominantagoa da. Jeneral bat da. Oso indartsua da. Testua asko errespetatu da, Lorca asko errespetatu eta mimatu behar delako.

"ESKEMAK APURTU DITU, BESTE KONTESTU BATEAN DAGO OINARRITUTA"

Mustutzearen ondoren, zer?

Asko mugitzea espero dugu. Egia esan, espektatiba sortu dugu, klasiko honekin zer egin dugun ikusteko gogoekin. Hamar aktore gara eta egutegiak ixteko zaila izango da, baina ea zer datorren. Dena ongi joatea eta toki askoatako ateak irekitzea espero dugu. Altsasura ekartzea izugarri gustatuko litzaidake.

Zenbat denbora daramazue proiektuarekin?

Testuaren gainean lanean bi hilabete, baina maiatzetik aktoreak elkartzen joan gara, bilerak egiten, binaka lantzen... Cariñena Lorcaren zale amorratua da, eta testua memoriaz daki. Gauzak oso argi zituen.

Estreinaldiaren ondoren, lana aldatzen da?

Publikoan eraskusteak erantzunak ematen dizkizu eta bidea markatzen dizu. Zerk funtzionatzen duen eta zerk ez ikusten da. Estreinaldia erditze bat bezala dela esaten dute, baina gero hazi behar da. Handia egin behar da. Antzezlan honekin dena egina dugu, oso koreografiatuta dago eta zer egin behar dugun badakigu, baina oraindik hazi daiteke. Estreinaldira beti justu iristen gara. Beti behar duzu denbora gehiago.

Lan gehiagorekin zabiltza. Zineman aritu zara ere.

Irati pelikulan papertxo bat lortu nuen. Profila eman nuen, eta ni oso pozik. Oso zati txikia tokatu zait. Baina Loarre gaztelura joan nintzen eta horrelako pelikula batean sartzea izugarria izan da. Pelikula handia da, inbertsioa dago, eta hotel batean egon nintzen, nire bila etorri ziren, protagonistekin egon nintzen... Oso dibertigarria eta interesgarria iruditu zait.

Gustatu zaizu?

Bada, bai. Kamerekin oso lotsatia naiz. Baina pixkanaka geroz eta erosoagoa sentitzen naiz kameraren aurrean, eta oraingoan asko disfrutatu dut. Antzerkiarekin alderatuta desberdina da. Baina proposamen gehiagorako irekita nago.

Feten jaialdian egon zineten ere. Zer aurkeztu zenuten?

Edizio arraroa izan zen bakarrik kultur programatzaileendako izan zelako. Publikorik gabe. Yarleku konpainiarekin eta Laura Villanueva aktorearekin batera *Retales* antzezlana aurkeztu genuen. Zuzendaria María Frías zen. Txotxongiloetan aditua da. Lana mustu genuen, ongi egon zen, baina ez zen nabarmendu. Ferian agertzen zara eta programatzaileek ikusten zaituzte gero programatzeko. Baina momentuz stand by dago.

Momentuz, 'Etxerik txikiena'-rekin jarraitzen duzue.

Zoriontsu gaude. Prozesu zoragarria izan zen, eta Nafarroako eta Euskal Herriko mugak gainditu ditugu. Andaluziako Escenia jaialdian egon gara, eta datorren astean Audaces festibalean egongo gara. Gero Malagara joango gara. Ibizan ere egon gara, Catalunyan, oso zaila dela sartzea. Oso pozik gaude. Aurrera jarraitu nahi dugu. Ikuskizun bat gogoekin eta maitasunarekin egiten duzunean, urte askotarako da. Gainera, oso ongi funtzionatzen du haurrekin. Mezua zabaltzea lortu dugu. Haurrak galderekin joaten dira etxera.

Nola bizi izan duzue pandemia?

Normalean aktoreak egoera zail batean bizi bagara, pentsa egoera honetan. Badira lankide asko oso gaizki pasatzen ari direnak. Guk aurretik mustu genuen eta bidean zegoen lan bat zen. Granadara joaten harrapatu gintuen, eta aurten iaz egin behar genuen jaialdi horretan egongo gara. Zenbait gauza egin gabe gelditu zaizkigu, eta emanaldiak galdu ditugu, baina gehienak berreskuratzen ari gara. Orain programazioak pixka bat saturatuta daude.

11 GALDERA

"Filmak Filmotekan artxibatuko dituzte"

Mariana Espuny Lezaunek etxean film zaharrak zituen, eta Nafarroako Filmotekak eta Liburutegi Sareak 'Gure oroimenaren fotogramak' ekimenari esker Irurtzungo liburutegira eraman, eta filmotekako artxibategian gordeko dituzte

Erkuden Ruiz Barroso IRURTZUN

Mariana Espuny Lezaun 'Gure oroimenaren fotogramak' ekimenaren parte hartzailea.

1 Nola iritsi ziren film horiek zure etxera?

Nire aita soldadorea zen eta gauza zaharrak gustatzen zitzaizkion. Denetarik izan zuen: kotxe zaharrak, altzairuak, burdinak, motorrak, txirrindulak... Material horren guztiaren artean zinema proiektore handi bat zegoen, baita film bobina hauek ere. Etxea gauza zaharrez beteta dugunez, pentsatu genuen saltzeko eta emateko momentua iritsiko zitzaiela. Beste gauzak pixkanaka saltzen joan naiz. Bolumen nahiko handia zen eta ez nekien oso ongi zer egin haiekin. Kasualitatez filmotekaren ekimenaren berri izan nuen.

2 Nola lortu zituen?

Aitak Iruñeko eta gertuko antikuario guztiak ezagutzen zituen. Jende asko ezagutzen zuen. Objektu batekin maitemintzen zenean, lote guztia erosten zuen, edo trukeak egiten zituen ere. Baina ez zen bereizten, eta azkenean hainbeste gauza bildu zituen bakarrik etxea bete zuela. Agian proiektoreak erosterakoan pelikulak ekarri zituen ere.

3 Proiektorean ikus zitezkeen?

Ez dut uste. Erosi zituen tresna asko gero ez zituenak martxan jarri. Filmak etxera ekarriko zituen, txoko batean jarri zituen, momenturen batean proiektorea saldu zuen, eta pelikulak etxean geratu ziren.

4 Zer nolako pelikulak zeuden?

Asko zeuden, 70 bat. Nahiko gaizki kontserbatuta zeuden. Oso gutxi zeuden bere plastikozko kutxan. Zikintzen ari ziren. Zenbait filmetan bai ikusten zen westerm pelikularen bat zegoela. *Tiburón* ere bazegoen. Baina ez dakit pelikula garrantzitsuren bat ote zegoen. Fotograma batzuk ikusteko aukera zegoen. Ea filmotekan makinaren batean sartu eta ikusteko aukera duten.

5 Nola ezagutu zenuen filmotekaren ekimen hau?

Ez dakit Irurtzungo liburutegian jakin nuen edo iragarki bat irakurri nuen. Artxibo historiko bat sortzeko material zaharra artxibatzeko edo digitalizatzeko jaso behar zutela. Juleni, Irurtzungo liburuzainari, galdetu nion pelikula horiek nituela, eta ez nekien emateko aukera izango nuen edo ez. Aurretik filmotekarekin harremanetan jarri nintzen pelikula horiek nituela esateko, baina esan zidaten bertara eraman behar nituela, eta gaizki baldin bazeuden, ezin zutela ezer egin. Ezin nituen eraman oso handiak eta pisutsuak zirelako. Momentu hartan utzi nuen.

6 Nolakoa izan da emateko prozesua?

Julen arduratu da. Filmak Irurtzungo liburutegira eraman nituen, eta ez dakit berak zuzenean filmotekara eraman zituen edo haien bila etorri ziren. Ez ziren kotxean eramateko modukoak. Irurtzunera eramateko zenbait bidai egin behar izan nituen. Uda baino lehen eraman nituen, programaz jakin nuenean.

7 Zer gertatuko da material horrekin?

Niri esan zidaten materiala sailkatzen dutela. Egon daiteke jendea argazki edo zinema kamera zaharrak eraman dituztenak... Nik pelikulak nituen. Ez dakit zer nolako materiala jaso duten. Deitu ninduten esateko materiala jaso zutela eta orain ikusiko zutela zerbait egin zezaketen. Momentu horretan ez omen zuten film formatu hori ikusteko tresnarik.

8 Gero materiala digitalizatuta itzuliko dizute?

Ez dakit. Bi aukera ematen dizute: materiala ematea edo uztea. Materiala ematean filmoteka jabea izatera pasatzen da eta materiala erabili dezake, eta uzten baduzu norberak jabea izaten jarraitzen du, baina erabiltzeko eskubidea ematen diozu. Nik esan nien ematen nuela, ez nuen inolako interes berezirik material hori izateko.

9 Zer iruditzen zaizu zerbitzua?

Ideia oso ona iruditu zait filmotekak liburutegi sarearekin kolaboratzea. Liburutegiak liburuak uzten ditu, baita ikus-entzunezkoak ere. Orain Irurtzungoan esan digute aurrekontua moztu dietela eta gutxiago ekarriko dituztela. Baina sarearekin bat egitean jende gehiagorengana iritsi daitezke.

10 Material gehiago emango duzu?

Nik hori bakarrik eman nezakeen. Ez dakit beste momenturen batean gauzak saltzen joaten naizenean tresnaren bat ikusten badut eman dezakedan. Saldu aurretik ikertu behar da, eta balorea duen ikusi. Ikusten badut filmotekan lekua dutela, emango dut.

11 Larunben bizi zara, eta Irurtzungo liburutegiko erabiltzailea zara.

Bai, gertu dagoelako. Zortzi kilometrora dago, gutxi gorabehera. Berriozarkora joaten naiz ere Iruñera askotan joaten naiz handiagoa delako. Baina gehien bat Irurtzunera noa.